

hh
hik hasi

189



LOMCE-RI AURRE EGITEKO GIDA • EMILIO SANCHEZ •

0-3 ZIKLOKO HEZITZAILEEN FORMAZIOA • GELA ALTERNATIBOA

• XALDUN KORTIN • WWW.BADOK.INFO • MIREN AMURIZA

aurkibidea



10
gaia

LOMCE-RI AURRE EGITEKO GIDA

Espainiako Gobernuaren hezkuntza erreforma ez ezartzeko neurriak proposatu dituzte hainbat eragilek, horien artean da Hik Hasi. 2013ko ekainean hartutako konpromisoa betez, "Gure gida" izeneko txostenaren zirriborroa osatu dute. Inposaketarik ez onartzea da xedea, LOMCE ez aplikatzeko estrategia komunak lantzea eta hezkuntza-sistema propioa eraikitzea.



18
elkarrizketa

EMILIO SANCHEZ

Ikasgeletan egiten diren irakurketa-saioak eta ikasleen irakurmena hobetzeko Lasarteko Berritzeguneak bideratutako "Ikasteko Irakurri" prestakuntza-programan aholkulari lanetan aritu da hiru urtez bilakaeraren psikologiako katedraduna. Inoiz baino informazio-iturri gehiago ditugunez, lehen baino gaitasun kritiko eta metakognitibo handiagoa behar dugula dio.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

'GURE GIDA', LOMCEri aurre egin eta Euskal Herrirako hezkuntza eraikitzeko tresna

16 elkarrizketa

EMILIO SANCHEZ,

Bilakaeraren Psikologian katedraduna

22 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa

26 esperientziak

HEGOALDE ESKOLA: Gela alternatiboa

30 ekarpenak

XALDUN KORTIN, JOLASTU GUREKIN

ARGANTZON IKASTOLA, Trebiñun bizirik iraun nahian

34 galdeidazue

Zer ekarpen egin zuen Eusebio Osak? **PAKO SUDUPE**

40 hik hasi-ren proposamena

WWW.BADOK.INFO

42 Atzeko atetik

MIREN AMURIZA

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu, Arantzazu Muñoa eta Iraide Baskaran. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gofii, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Trebiñuko Argantzón ikastolaren aldeko festa: Hik Hasi. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2014-05-23). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com


EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eman diezaiogun hezkuntzari garrantzia



Harpide zaitetz, eta indartu ezazu hezkuntza komunitatea

-50 euro urtean jarrita 10 hik hasi aldizkari, ale monografikoak eta Euskal Herriko baliabide pedagogikoen gida. Horrez gain, prezio bereziak Udako Topaketetan, jardunaldietan eta argitararaten ditugun gainontzeko materialetan.

-20 euro urtean ordainduta 4 Hazi Hezi aldizkari.

Bi aldizkariak hartuta, 65 euro urtean.



Hazi Hezi *haziera eta heziketa aldizkaria*

Urteko 4 aldizkarien
harpidetzak **20 euro**

www.hikhasi.com

editoriala ekaina

Zer zaila den, eta aldi berean zer beharrezko, elkarrekin aritzea



Gure Gida-ren helburua, eztabaidarako tresna izatea da. Edukiak eta egon daitezkeen aukerak mahai gainean jarri, eztabaidatu, eta, posible den neurrian, taldeka, eskolaka edota herrika erabakiak hartzea

Ia urtebete elkarrekin aritu ondoren, “Gure gida” deritzan proposamena egin dugu hainbat hezkuntza eragilek. Gida horrek, nagusiki, bi ildo jorratzen ditu: alde batetik, herri gisa gure hezkuntza eraikitzen jarraitzeko proposamena egiten du; eta, bestetik, espainiar estatuak ezarri duen LOMCE lege organikoaren aurrean, zer neurri har daitezkeen eskola bakoitzaren heziketa-prozesua kaltetua izan ez dadin.

Urteak daramatzagu gure hezkuntza propioa garatzeko ahaleginetan Euskal Herrian, baldintza askarretan sortu ziren lehen ikastoletatik hasita gaur arte. Jendartearen inizatibak eta lanak hainbat arlotan aurrerapausoak egin ditu, baina beti, bi estatuen legediaren menpe aritu behar izan da. Horrek, eskolak normaltasunez garatzeko zailtasun eta oztopo ugari sortu ditu eta sortzen ditu.

Halako baldintzetan arituta, eta gure eskolako hezkuntza hobetzen joateko, zirrikituak bilatzen, eskola-

ren komunitatean parte hartzen, hezitzaileak prestatzen, gertuko administrazioak inplikatzeko eta abar egiten aritu gara; irtenbide egokiena aurkitzeko irudimena lantzen joan da.

Orain, azken hamarkadetakoa hezkuntza-prozesuaren hausnarketa egitean, jendartearen parte hartzea motorea izan bada ere, gertuagoko administrazioek hartzen duten jarrera garrantzia handikoa dela esan dezakegu. Ikusi besterik ez dago Nafarroak eta Arabak eskolaren bidez egin duten euskalduntzearen garapena.

Gure Gida-ren helburua, eztabaidarako tresna izatea da. Edukiak eta egon daitezkeen aukerak mahai gainean jarri, eztabaidatu, eta, posible den neurrian, taldeka, eskolaka edota herrika erabakiak hartzea.

Ildo pedagogikoari edota kurrikularri eskaintzen zaio pisu handia. Orain arte garatu ditugunak jasotako, aurrera begira jarri eta herritar guztiontzako egokia izan daitezkeen

heziketa-ildoak marrazten da. Eta, hori guztia praktikara eramateko oztopo ikusten den LOMCE legearen aurrean, zer aukera dauden izendatzen dira.

Legea onartua dago eta datorren ikasturtean hainbat neurri jarriko dira martxan. Gure egunerokoak eta adituen ikerketek erakutsi dute eskola-komunitateak inplikatzeko eta parte hartzen duenean, ikasleen emaitzak hobekiago direla arlo guztietan, baita arlo akademikoan ere. Hori dena ezagututa, nola onartu eskola bakoitzaren erabakiak administrazioaren eta zuzendariaren (administrazioaren ordezkaria) artean soilik hartzea?

Hortxe dugu lehenengo erronka: eskolak demokratizatzea, parte hartzea sustatzea, gertuko administrazioak (udalak) inplikatzeko, kudeaketa gardenagoa egitea, eskola-komunitateko guztiak entzunak izatea, herri gisa jokatzeko...

hizpide

EAEn haur-eskolen doakotasuna ezbaian



Araba, Bizkai eta Gipuzkoako haur-eskola publikoak doakoak izan daitezene lanean ari dira ELA, LAB eta EILAS. Familien diru-sarreretara egokitutako eredu bat aplikatzeko exijitu diote Eusko Jaurlaritzari erabat doakoa izan arte. Prezioak familiaren diru-sarreraren arabera egokitzeko asmoa du Eusko Jaurlaritzak, baina ez doan jartzekoa.

Haurreskola Partzuergoan plazen % 28 hutsik daude, hau da, 8.200 umearentzat dago lekua, eta libre daude 2.300 pasatxo. Nafarroan antzera dabilta datuak. Krisiarekin eta jaiotzak gutxitzearekin lotu dute jaitziera erakundeek. Guraso taldeek eta sindikatuek, ordea, prezioei egotzi diete jaitziera.

Hainbat urtetan bestelakoa izan da egoera: haur-eskola publikoak gainezka eginda eta gurasoak lehian,

nork lortuko lekua umearentzat. Udal asko dira aurreko urteetan gobernuari herrian haur-eskolak irekitzeko edo lekuak ugaritzeko eskean aritu direnak. Beste bat da eskaera orain: ez ditzatela itxi, nahiz eta ikasle gutxi egon.

Adin horretan eskolatzea derrigorrezkoa ez izan arren, haur-eskolek doakoak izan beharko luketeela diote sindikatuek. Aukera erraztu behar zaiela gurasoei. ELAk, LABek eta EILASEk proposamenak jarri dituzte mahai gainean: haur-eskolak dohai-nik jartzea aldarrikatu dute, eta hori era progresiboan egitea, familia bakoitzak dauzkan diru-sarreraren arabera prezioa jarriz aurrena.

Jaurlaritzak ez dago ados doakotasunarekin. Bere esanetan, Gobernuak dagoeneko ekarpen handia egiten du haur-eskolak pagatzeko: Haurreskolak Partzuergoaren % 80 ordaintzen du eta bekak ere jartzen ditu, batez beste, 850 euro urtean ume bakoitzeko. Sindikatuen eskaria hein batean bere egiteko asmoa du, hainbat, Jaurlaritzak. Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak iragarri du tarifak egokitzea aztertzen ari direla: diru-sarreraren arabera izango dira, ez guztientzat berberak. Oraingo sistemaren aldean bidezkoagoa izango dela uste du: batetik, ekitate handiagoa izango delako prezioak egokituz; bestetik, familiek ez dutelako dirua aurreratu beharrik izango.

Nafarroako haur-eskoletan % 30eko mozketei eutsiko die Gobernuak

Arazo ekonomikoak argudiatuta, oraingoz 0-3 urte bitarteko zentroetara bideratutako diru ekarpenaren % 70 soilik ziurta dezakeela dio Nafarroako Gobernuak. Orain hilabete batzuk iragarritako % 30eko mozketei eutsiko die hortaz.

Nafarroako Hezkuntza kontseilari Jose Iribasek, ordea, ukatu egiten du haur-eskoletan mozketarik egin izana: "Ez dira murrizketak. Kontzeptu desegokia iruditzen zait. Udalek finantzaketaren % 70 jaso dezakete dagoeneko, gainerako % 30ari uko egin gabe". Falta den diru kopuru hori gaur gaurkoz ez daukatela gaineratzen du eta zor dutena pagatzeko borondate politikoa baduten arren, ez du zehazten noiz egingo duten.

Diruaren herena kenduta, zama osoa Udalen eta gurasoen gain geratu dela salatu dute hainbat elkartek eta erakudek, eta eskolen geroa airean dela diote.

Udalen ardurapean daude haurren ikastetxeak: diru ekarpenaren erdia, Hezkuntza Departamentutik jasotzen dute; % 25, berriz, familien partetik. Hainbat Udalek diote Gobernutik jaso gabe geratu diren diru kopuruari aurre egitea ezinezkoa dela eurentzat, eta gastua lehendik egin dagoenez, dirurik ezean, arazo larriak izango lituzketela haur-eskolen jarduna bermatzeko.

izan da

Herriek merkatuko prezioan baino apalagoan alokatu ahal izanen diote Seaskari

Seaskari buruzko zirkularra zabaldu dute Pirinio Atlantikoetako prefetak eta Baionako suprefetak eta haren arabera herriek merkatuko prezioan baino baxuagoan alokatu ahal izanen diote Seaskari. Ñabar-dura batekin, hala ere: dagoeneko eginda dauden egoitzak izan behar-ko dira, eta inola ere ez eraikuntza berriak. Bestetik, herriko etxe edo elkargoek lur soila alokatu ahal izango diote Seaskari, baldin eta prefabrikatuak jartzeko bada. Eraikuntza gogorrak egitea aldiz, debeatuta dago. Lege horrek hemendik aurrera irekiko diren ikastolen kasurako soilik balioko du, baina ez die dagoeneko eginda dauden ikastolei eragingo. Hala, Seaskarekin dituen arazoan % 80 konponduko direla dio prefetak.

Seaskaren beharrak ase gabe

Lur publikoak Seaskaren esku uztea legezkoa dela ebatzi ondoren, prefetak arrazoia eman diola uste du Seaskak. Hala ere, prefetak eta Frantziako Barne Ministerioko arduradunek Seaskarekin adostasunik landu gabe plazaratu dute zirkularra, eta, ikastolen arabera, ez ditu Seaskaren beharrak asetzen. “Zirkular honek ez du ikastolen eraikinen arazoan % 80 konpontzen; alderantziz, arazoa bilakatzen da ditugun ikastolen % 80rentzat. Zirkular hau indarrean izan balitz azken 45 urteetan, hamar ikastolatik zortzi ez ziratekeen sekula egingen”, diote Seaskako arduradunek. Duela 45 urte sortu zirenean bezala, diru publikoaren sostengua funtsezkoa da Seaskarentzat.



Murgiltze eredu orokortua zabaldu nahi dute hainbat hezkuntza-eragilek

Hizkuntza-ereduei buruzko eztabaida zabaldu da berriro hezkuntzan. Hiru elekoaren ebaluazioa agertu berrikan, ereduaren sistemari eusteko asmoa agertu du batetik Eusko Jaurlaritzak. Bestetik, LOMCE indarrean jartzen bada, oraingo sistema ez du aldaraziko, baina mugatuko du, murgiltze-eredu orokortuari atea itxiko baitio. Egoera hori ikusita, ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko proposamena indartu nahi du Kontseiluak. Egungo ereduak goia jo dutela nabarmendu du, eta murgiltzea ezinbesteko jo du, “kohesioa” ziurtatze aldera.

2008an egin zuten proposamena Kontseiluan dauden eragileek: Ikastolen Elkartek, EHIGEk, Kristau Eskolak, Sortzen-ek eta Hik Hasik. Euskarazko murgiltze eredu orokortzea proposatu zuten, ikasleek lortu beharreko hizkuntza helburuak mailaz maila zehaztuz. Hezkuntza-erreformaren atarian, proposamen hori indartzearen beharra azpimarratu dute.



hizpide



Hezkuntza-ereduen gainean hausnartzeko jardunaldia, ekainaren 28an eta 29an

“Hezkuntza guztion ardurua da. Zer eskaini nahi diegu gure umeei?”. Premisa horretatik abiatuta, hezkuntzaren oinarrien inguruan hausnartzeko eta ideiak elkar trukatzeko aukera izango da ekainaren 28an eta 29an Artaunso albergean (Ernio mendiaren pean, Gipuzkoa) egingo den topaketa. Ekainaren 28an, Bizitoki eta Tximeletako hezkuntza-proiektuak aurkezteaz gain, Nerea Mendizabalek ziurtasun emozionalaren gainean hitz egingo du. Gauean, berriz, Amaia Zubiria eta Edorta Amuruaren kantaldia izango da. Ekainaren 29an, ostera, igande goizez, *helduak, hezkuntza eta haurrak* izango dira mintzagai eta ondoren biodantza saioa egingo da Lorea Agirrebeitiarekin.

Umeek euren txokoa eta arduradunak izango dituzte topaketako orduetan. Jardunaldian parte hartzeko 10 euro ordaindu behar du pertsona bakoitzak; umeena berriz, doan da. Jatorduak eta gaua norberak bere kontura antolatzeak aukera du. Aterpeko zerbitzua erabiliz gero, aldiz, gosaria 3 euro kostako da, bazkaria 8 euro eta gaua 12 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero edota izena-emateko 943 581055 eta 690326513 telefono zenbakietara dei daiteke nahiz artaunso@gmail.com helbidera idatzi.

Ikaskuntza kooperatiboaren lehen topaketa Donostian

Ekainaren 4an, ikaskuntza kooperatiboaren lehen topaketa egingo da Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolan “Ikasteko Kooperatu – Kooperatzen Ikasi” izenburupean. Goizeko 9etan hasiko da jardunaldia. Lehenik Jose Ramon Lagok IK-KI programaren ibilbidearen eta erronken gaineko hitzaldia emango du, eta ondoren, egun osoan zehar tailer praktikoak egingo dira.



‘Pikler Tailerra’ Budapesten egiteko aukera

2014 urtean bi formazio saio Budapesten egiteko aukera eskaintzen du “Profesionalentzako Pikler Tailerra”-k. Horietako bat *Haurreri begira* izeneko saio tematikoa izango da eta irailaren 1etik 5era egingo da; bestea ikastaroa berriz, *Gerturatze piklertarra: mugimendua eta zaintza, errespetuzko harremana* deiturikoa, abenduaren 1etik 5era egingo da. Interesa duenak, informazio gehiago eskuratzeko loczy@pikler.hu helbidera idatz dezake.

izango da

‘Hezkuntza Gizatiartu’ kongresua egingo da Bilbon ekain amaieran

Ekainaren 27an, 28an eta 29an “Hezkuntza Gizatiartu” izeneko kongresua egingo da Bilboko Bizkaia Aretoan, EHUk antolatuta Claudio Naranjo Fundazioaren laguntzarekin. Dimensio gizatiarra duen testuingurua eskaini nahi zaio hezkuntza-komunitateari. Horrexegatik, hezkuntza humanizatzea xede duten laneko esperientziak, autoezagutzara bideratutako bizipenak, eta jarra- arduratsuak eta sortzaileak estimulatzeko teknikak partekatuko dira bertan.

Ekainaren 27 arratsaldean, ostiralez, emango zaio kongresuari hasiera, eta larunbatean egun osoz hainbat hitzaldi eta tailer egin ostean, igande eguerdian amaituko da. Bertan, besteak beste, orientazio sistemikoaz, familiekin egindako lanaz, entzutearen pedagogiaz, zaintzaz, adimen anizkoitzaz, ikaskuntza integratiboaz edota hezkuntza alternatiboaz mintzatuko dira adituak. Horrez gain, ekainaren 28an, saio paraleloak ere egingo dira tailer formatuan; hala nola, gorputzaren espresioari edo kontzientziari buruzkoak, jolas sinbolikoaren garrantziaren gainekoak edota antzerkiaren ingurukoak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 219511 eta 699492271 telefono zenbakietara dei daiteke edota cverano@ehu.es helbidera idatzi.



Hik Hasi Udako Topaketetako hainbat ikastarotan izena emateko aukera dago



Hik Hasiren XV. Udako Topaketetan izena emateko epea amaitu bada ere, hainbat ikastarotan bada oraindik tokia. Horien artean daude, “Irakaslea bere jardueraren aurrean: metodo berriak prestakuntzan”, “Kalea esploratu, eraldatu eta ikasi!”, “Eskola libre eta demokratikoak”, “Pentsamendu autonomoa eta sortzailea komunikazio enpatikoan”, “Heziketa emozionala”, “Bideoa: editatzen ikasi, Pinnacle Studio programaren bidez”, “Dantza eta gorputz hizkuntza”, “Espresio tailerra”, “Zeinu hizkuntza”, eta “Pikler Loczy: bortxakeriarik gabeko heziketa”.

Ikastaro horiek betetzen diren arte izena emateko aukera dago www.hikhasi.com webgunearen bidez.

Donostiako Ekintza ikastolan eta EHUUn izango dira ikastaroak, uztailearen 2,3 eta 4an.

GAIA

GURE GIDA

*LOMCEri aurre egin eta Euskal Herrirako
hezkuntza eraikitzeko tresna*





Espainiako Gobernuaren hezkuntza erreforma ez ezartzeko neurriak proposatu dituzte hainbat eragilek, horien artean da Hik Hasi. 2013ko ekainean hartutako konpromisoa betetz, "Gure gida" izeneko txostenaren zirriborroa osatu dute hala. Xedea inposaketarik ez onartzea da, LOMCE aplikatu ez dadin estrategia komunak lantzea eta Euskal Herrirako hezkuntza-sistema propioa eraikitzeko urratsak egitea.

Herri eta eskoletan lantzeko estrategia

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetze-ko Lege Organikoak, hots, LOMCE legeak zein ondorio izan ditzake euskal hezkuntzan? Eta lege hori ez aplikatzeko zer egin daiteke? Nola joka dezakete irakasleek, ikasleek eta gurasoek? Zein neurri izan daitezke eraginkorrak? Eta nola lortu hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa? Galdera horiek oinarri hartuta, eta urtebeteko lanaren ostean, *Gure gida. LOMCEri aurre egin eta Euskal Herrian gure hezkuntza eraikitzeko* izeneko txostenaren zirriborroa ondu dute hainbat eragilek: ELAk, LABek, STEE-EILASEk, Ikasle Abertzaleak, Ikastolen Elkarteak, UEUK eta Hik Hasi. LOMCE antidemokratikoa, zentralizatzailea, doktrinatzatzailea, uniformizatzailea, merkantilista, atzerakoia, segregatzailea eta elitista dela deritzote. Hezkuntza erreformak leharzkeen ondorio horiek izan dituzte jomugan hiru helbururekin: erreformari modu kolektiboan aurre egitea, ez aplikatzeko moduak lantzea eta gizarteratzea, eta Euskal Herriko hezkuntza-sistema propioa bidean urratsak egitea.

Maiatzaren 10ean Agurainen aurkeztu zuten gidaren zirriborroa 100 lagun ingururen aurrean eta berorri osatzeko parte-hartze prozesua ireki zuten bertan. Jardunaldiaren hasieran Sortzen-eko kide Aiora Epeldek azaldutako eran, gidak tresna dinamiko izan nahi du, idatzitakotik praktikara eramateko orduan tokian-tokiko errealitate, erritmo, dinamika zein apustuei laguntzeko bitartekoa: "Pro-

zesu honetan hezkuntza-komunitate eta herritar ororen inplikazioa sustatzeko mekanismoak ikastetxe eta herri-azulo asanbladak, blogak, eragile eta antolakundeekin bilerak... martxan jarri nahi ditugu". Ekarpenguztiak jaso ostean, irailerako behin betiko gida prest izatea da helburua, LOMCE indarrean sartzen denerako hain zuzen.

Gida osatzeko ez dira hutsetik abiatu, badira adostasun zabala duten hezkuntza-mailako ekimenak eta Euskal Herritarren Hezkuntza Eskubideen inguruko batasuna ere kontuan izan da. Horrez gain, hezkuntza-sistemaren hainbat ardatz markatu dira: eredu deszentralizatua eta zentronen autonomia; ikasle euskaldun elea-niztunak sortuko dituen; kritikotasuna ardatz izango duena; pedagogia berritzaileetan eta euskal curriculumean oinarrituko dena; hezkidetzaren helburu duena; eta inklusiboa, parte-hartzailea eta demokratikoa, laikoa, integrala izango dena; eta elkarbizitza nahiz lankidetzaren bultzatuko dituen. Hori guztia adostuta izan arren, gidaren zirriborroan ageri denez, LOMCEk leharkeen errealitateak kontrako helburuak ditu, eta eragileen iritziz, horrexegatik da garrantzitsua Espainiako Gobernuak ezarri nahi duen hezkuntza erreformari aurre egiteko moduak aztertu, landu eta praktikara eramateko bideak egitea: "Horretarako ordea, ezinbestekoa izango da hezkuntza-komunitatea osatzen dugun guztion eta jendartearen inplikazioa eta parte-hartze aktiboa".

G



Pertsonak ardatz, kompetentzietan trebatzea xede

Gidaren alderdi pedagogikoa eta kurrikularra lantzeko hainbat adituren laguntza izan dute erakunde eta eragileek. Horietako bat da Mondragon Unibertsitateko irakasle Mariam Bilbatua. Aguraingo saioan ere berak eman zuen atal horien berri.

ILDO PEDAGOGIKOA

1. Eskubide murrizketen aurrean hezkuntza eskubidea bermatzea

Bilbatuak gidaren aurkezpenean azaldutako eran, globalizazioak eragindako desabantaila egoerei, belaualdi berriak beraien testuinguruan errotzeko zailtasunei eta helduarora igarotzeko oztopoei erantzun integrala eman behar zaie. Izan ere, pertsonen eta jendartearen garapena prozesu kolektiboa da, ez prozesu indibiduala. Beraz, Euskal Herritik eta Euskal Herrirako eraikitako hezkuntza-sistemak kontuan hartu behar ditu bertako herritarrak eta horien beharrak: “Oinarrizko Hezkuntzara etorrita, garapen pertsonal eta kolektibo baten bermea izan behar da hezkuntzak. LOMCEk ikasleen aukerak murriztu nahi dituen eran, gure hezkuntza politika, praktika eta erantzukizuna hezkuntza eskubidea bermatzera bideratu behar da. Jendartean ditugun desabantaila eta desoreka sozial, ekonomiko, pertsonal, kolektibo... konpentsatzea lortu behar dugu, haur eta gazte orori aukera berdina izateko baldintzak sortuz”.

2. Eskola inklusiboa

Hezkuntza eskubideak oinarri izanik, kalitatezko hezkuntzarako ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzen duen eskola jotzen du inklusibotzat gidak. Horretarako, gidaren egileek diotenez, irakasleek euren praktikaren gainean modu sistematikoan hausnartu behar dute, egunerokotasuneko eta gertuko jendarteari erantzun egokia eman eta etengabeko berrikuntza kultura eraikiz: “Kalitatezkoa izango da, ikasle bakoitzak bere gaitasun, potentzialtasun eta aukerak ahal bezainbeste garatzen dituen. Horretarako, beharreko zerbitzu, bide eta bitartekoak eskaini behar dira. Argi ikusten da, orain arte ez bezala, eskola inklusiboak hezkuntza-politikaren eta -sistemaren

ikuspegia eta iparra izan behar duela. Ildo estrategikoa baino gehiago, sistemaren kultura izan behar da”.

3. Ikaskuntza-komunitateak hobekuntzaren oinarri gisa

Gidako alderdi pedagogikoa osatu duten adituek diote kalitatezko eskolak bertako hezkuntzako langileen garapena ahalbidetu eta bermatu behar duela. Ildo berean, uste dute irakasleen esku dagoela praktikaren hobekuntzarekin lotutako ezagutza garatzea. “Hezkuntzako langile ekipiak eskoletako errealitatea eraldatzeko indar-gune dira”. Zentzu horretan, gidan proposatu dute, LOMCEk ezarri nahi duen ikastetxeetako zuzendaritza eta kudeaketa ereduaren aurrean, lidergo partekatua eredu



jarraitzea, “fokua hezkuntzako langileengan jartzea, horien konpetentziengarapenean, eta ez lidergo bakarrean eta boterean”.

4. Herri hezitzailea

Gidan irakur daitekeenez, ikasgelatik at badaude beste ikaste eremu batzuk ere (kalea, herria, aisialdiko espazioak, etab.) pertsonentzako ikasteko espazio esanguratsu izan daitezkeenak. Beraz, eremu horiek guztiak kontuan hartzeko beharra azpimarratzen du: “Herria subjektu hezitzaile moduan ulertzen dugu, eta hemen kokatzen dugu ikasleen eskubideen bermearekiko komunitateko eragileen erantzunkidetasuna eta partaidetza printzipioak”. Azken xedea litzateke herritarren bizi-kalitateari eragitea, herritarren izaera eta demokrazia parte hartzailearen eta solidarioaren balioetan aritzeko asmoz.

ARLO KURRIKULARRA

1. Nolako jendartea nahi dugun halako hezkuntza-sistema eraikiko dugu

Gidak jasotzen duenez, hezkuntza-sistemak rol garrantzitsua dauka jendartearen kohesioan eta garapenean. Pertsonen eta jendartearen garapena prozesu kolektibo gisa ulertzen du, eta ez prozesu indibidual moduan: “Pertsonen eskubideak bermatu, beharrei erantzun eta hauek komunitateko kide gisa garatzeaz gain, komunitateko beharrak ere ardatz gisa hartu beharko liratekeela pentsatzen dugu”.

2. Curriculumaren antolaketa

Euskal Herriko Hezkuntza-Sistemak bi xede defendatu beharko lituzke pedagogia-adituen arabera; bate-



rik, pertsona gisa garapen integrala lortzea, pertsonaren alderdi guztiak aintzakotzat hartuz eta garapena posible egingo duten bideak eskainiz; bestetik, euskal herritar gisa norbere nortasuna eraiki ahal izateko jakintza eskuratzea eta jakintza horiek modu kontziente eta integratuan erabiltzea.

3. Oinarrizko konpetentziak curriculumaren ardatz

Jakintza eta trebetasunetatik harago doan ahalmen integratu gisara ulertzen dituzte gidaren egileek konpetentziak, eta pertsonak egoera konplexuetan moldatu ahal izateko prestatu behar direla uste dute: “Mundua interpretatu, bertan modu egokian moldatu eta etorkizuna eraikitzekeo konpetente izango diren herritarrak eta jendartea izan beharko lituzke helburu gure hezkuntza-sistemak”.

4. Oinarrizko konpetentziak

garatzeko marko metodologikoa

Sormena eta parte-hartzea ikas-kuntzarako oinarrizko gako bihurtzen dira gidak zehazten duen marko metodologikoan. Izan ere, arazo konplexu, dimentsio anitzeko eta globalei erantzutekeo gai izango diren pertsonak garatu nahi badira, ezagutzaren erreprodukzioa baino haratago, sormena, auto-erregulazioa eta barne motibazioa bermatzen duten espazioak sortu behar dira ikaste-irakaste prozesuei lotuta.

5. Ebaluazio-markoa

Ebaluaziorako egoera errealak proposatuko lirateke eta ezagutza anitzen erabilera ahalbidetzen duen ebaluazioa egin beharko litzateke gida osatu dutenen irudiko, eta hasieran aurre-egutzak, esperientziak zein jarrerak bermatzen dituztenak, prozesuan auto-erregulazioa sustatzen dutenak, eta bukaeran hausnarketak bultzatzen dutenak.

LOMCE aplika ez dadin proposatzen diren neurriak

1. Pedagogia eta curriculumak

LOMCEk indar berezia ezartzen du datuen eta informazioaren ezagutzetan eta horien inguruko ebaluazioan, benetako hezkuntza berritzaile eta integrala oztopatuz. Horrexegatik, Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen diete LOMCE ez onartzeko, eta horren orde, Euskal Herriko errealitatea eta oinarritzko kompetentzien garapena kontuan izango dituen curriculumak eta pedagogia lantzeko. Herriz herriko curriculumak eta ikastetxeetako proiektuak indartzea ere proposatzen dute gidan.

2. Hezkuntza pertsonen eta jendartearen garapenaren zerbitzura

LOMCEren oinarrian hezkuntza ulertzeko guttiz ikuspegi atzerakoia gailentzen da prozesu eta kompetentzien garapena alde batera utzi eta edukien transmisioan oinarrituriko ereduak lehenetsiz. Hala, Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen zaie euren curriculum dekretuetan “LOMCEk inposatu nahi dituen ikuspegi atzerakoi, merkantilista eta doktrinatzailerak” ez sartzeko, eta “hezkuntza integral, laiko eta aurrerakoi” baten alde egiteko.

3. Espainiako Gobernuak kontrolaturiko ebaluazioei aurre egin

Ikastaldiaren amaieran LOMCEk dakartzan lau azterketak –Lehen Hezkuntzan bi, eta bana DBH eta Baxilergo amaieran– ez egitea proposa-

tzen dute eragileek. Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari Espainiako Estatutik “inposaturiko ebaluazioei uko egitera” dei egiten die, eta hezkuntzako langileei, familiei eta ikasleei azterketetan ez parte-hartzea. Desobedientzia jendetsua izatearen garrantzia azpimarratzen da, “erabaki horiek langile, ikasle eta familia ugari eta ikastetxe askok edo gehienek aurrera eramaten badituzte, arazo administrazioek izango dutelako”.

4. Eskola demokratiko eta parte-hartzailea

LOMCEk ikastetxeetan parte-hartzea gutxitzea eta zuzendaritzaren agintea handitzea dakarrela argudiatuta, ikastetxe bakoitzean kide guztiak (zuzendaritza, hezkuntza-langileak, familia, ikasleak eta herritarrak) parte-hartzea eta erabakitze-ahalmena bermatzeko eskatzen da gidan, eta erabaki guztiak modu parte-hartzailean eta demokratikoan hartuko diren konpromisoa hartzeko. Ikastetxeetan batzarrak sustatzea eta herri eta auzoetan hezkuntza mahai edo batzordeak bultzatzea ere proposatzen du.

5. Ikasle euskaldun eleaniztunak

LOMCEk gaztelania hezkuntza-ibilbidearen oinarritzko hezkuntza izatea derrigortzen duela dio gidak, hau da, beti bermatu beharko dela gaztelaniazko oinarritzko hezkuntza modua. Horrek benetako euskaldun-

tzea oztopatuko duela argudiatuta, eskoletan euskara hezkuntza-ardatza izatea proposatzen da. Horrez gain, herriko eragileekin batera, ikastetxe-ko eremutik haratago zabaltzeko hezkuntza proiektua lantzeko eskatzen da eta euskararen zein gainerako hezkuntzen gutxieneko ezagutza mailak zehazteko: Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean, euskaraz eta gaztelaniaz C1 maila izatea (EGAREN parekoa), eta B1 maila atzerriko hezkuntzan.

6. Berdintasuna, hezkidetzak eta eskola inklusiboa

Hezkuntza-erreforma berriak ikasleen arteko sailkatze edo mailatzea dakarrelakoan eta berdintasunaren aurkako atzerapausoa delakoan, ikastetxeei banaketa goiztiarrik ez egiteko eskatu diete eragileei, eta familiei horrelakorik ez baimentzeko. Horren aurrean, aukera berdintasuna bermatzeko duten materialak eta zerbitzuak eskura jartzeko galdegin dute eta eskoletako programak hezkidetzan oinarrituta diseinatuzko.

7. Kalitatezko hezkuntza guztiarentzat

“LOMCEk erkidegoetako gobernuak bultzatzen ditu hainbat ebaluazioetan ikastetxeek lorturiko emaitzak publiko egitera. Horrek, guk nahi dugun heziketa inklusibo eta integralarekin zerikusirik ez duten irizpideetan oinarrituz, ikastetxeak sailkatzea bultzatzen du, euren arteko konpetentzia bultzatuz eta ‘eliteko’ eta ‘biga-

ren mailako ikastetxeak sortzeko arriskua handituz”, hala ageri da gidan. Horren aurrean, gidaren egileek ikastetxe eta zuzendaritzari proposatzen diete ikastetxeen artean lehiatu eta “eliteko” ikastetxe izatera bideratzeko espezializazio kurrikularrari, bikaintasun “karrerari” edota antzekoei uko egiteko, eta espediente akademiko ona duten ikasleentzat plaza-rik ez gordetzeko eskatzen dute.

8. Ikastetxeen autonomia eta hezkuntza-sistema osoaren gaineko kontrol eta kudeaketa demokratikoa

Itunpeko ikastetxeei erraztasunak ematen zaizkie, baina lan-baldintzen hobetzean edota kudeaketa eta kontrol publikoan pausurik eman gabe. Ondorioz, ikastetxe guztietan hezkuntza-komunitatea osatzen duten estamentu guztien parte-hartzea eta erabakitze-ahalmena guztien esku izatea proposatzen du eta hori bermatzeko ikastetxeetako organo nagusiak demokratikoki antolatuta egotea. Horrez gain, kontrol publikoa areagotze aldera, funts publikoen erabilerari buruzko datuak garrantzitasunez adierazteko eskatzen da.

9. Eskola-porrota eta langabezia ezkutatzeko, Oinarritzko Lanbide Heziketa

DBHn zailtasunak dituzten ikasleentzat Oinarritzko Lanbide Heziketa sortu du LOMCEk. Gida osatu duten eragileek eskola-porrota eta langabezia ezkutatzeko bidea dela uste dute eta ikasleak hara ez bideratzeko eskatu diete ikastetxeetako orientatzaile eta familiei, kasu berezietan izan ezik (nolabait egungo HLPP/PCPI-ekin

gertatzen den antzeko zerbaiteko izango litzateke).

10. Lanbide Heziketa duala

LOMCEn bertan forma zehatzik ematen ez bazaio ere, Lanbide Heziketa duala legearen ardatzetako bat da. Kasu horretan, enpresek hezkuntza-sistemaren helburu eta diseinuan esku-hartze zuzena izango lukete.

Eta gidan aipatzen denez, enpresek etengabe eskulan merkea lortzeko tresna ere izan daiteke. Ondorioz, gida ondu duten eragileek proposatzen dute ardura pedagogikoa eta kurrikularra beti ikastetxeen esku izatea eta inoiz ere ez enpresen esku, eta ikasle-entzabideak babestu eta lan baldintza egokiak sustatzeko beharra azpimarratzen dute.

Neurri horiek aurrera eramateak ekar ditzakeen ondorioak

Gidan proposatzen diren hainbat neurrik ondorio positiboak dakartzate, eta ez kalte administratibo judizialik, ez langileentzat ezta ikasle eta familientzat ere. Horien artean daude herri hezitzaileari dagokiona (aurreko ataleko 4. puntua), ikasle euskaldun eleaniztunak bultzatzen dituen (5. puntua), berdintasuna, hezkidetzeta eta eskola inklusiboa indartzen dituen (6. puntua) edo ikastetxeen autonomia eta kontrol eta kudeaketa demokratikoa eskatzen duena (8. puntua).

Beste zenbait neurri hartuz gero, berriz, gobernu batak edo besteak ikuskariak bidal ditzakete eta neurria hartzearen gaineko ardura dutenei espedientea zabal diezaiekerite. Neurri horietakoak dira aurreko atalean landutako bi: hezkuntza pertsonen eta jendartearen garapeneraren zerbitzura jartzeko neurria (aurreko ataleko 2. puntua), eta guztientzat kalitatezko hezkuntza bermatzera bideratua (7. puntua).

Azkenik, proposatutako zen-

bait neurrik kalte administratibo eta judizialak izan ditzakete langile, ikasle nahiz familientzat. Beste bi neurri daude horien artean: pedagogia eta curriculumari dagokiona (aurreko ataleko 1. puntua) eta Espainiako Gobernuak kontrolaturiko ebaluazioei aurre egitera bideratua (3. Puntua).

Kasu horietan, gobernuak (Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak edota Nafarroako Gobernuak) ikuskariak bidal ditzakete eta ikastetxeetako zuzendaritzari edota hezkuntzako langileei espedientea ireki curriculum “ofiziala” betetzen ez aritzeagatik edota derrigorrezko azterketak ez egiteagatik. Kasu horretan inhabilitaziora iristeko arriskua legoke. Ikasle eta familien kasuan bestalde, kanpo-azterketak ez egiteari dagokionez, DBH eta Batxilergoko probak egiten ez dituzten ikasleak edota gainditzen ez dituztenak titulazio ofizialik gabe gera daitezke.

Emilio Sanchez



ELKARRIZKETA

“Inoiz baino informazio-iturri gehiago ditugunez, lehen baino gaitasun kritiko eta metakognitibo handiagoa behar dugu”

Emilio Sanchez Bilakaeraren Psikologian katedraduna da Salamancako Unibertsitatean. Ikasgeletan egiten diren irakurketa-saioak eta ikasleen irakurmena hobetzeko Lasarteko Berritzeguneak bideratutako “Ikasteko Irakurri” prestakuntza-programan, aholkulari-lanetan aritu da hiru urtez. Ikasleak burutzen duen edozein ikaskuntza-prozesutan irakurketa funtsezkoa dela iritzita abiatu zuten proiektua, eta eman ditu fruituak. Horiek azaltzen izan da Sanchez Donostiako irakasle-eskolan, eta hari hainbat galdera egiteko baliatu du bisita Hik Hasik.



Ikasleek euren ikaskuntza-prozesuan egiten dituzten irakurketa-saio guztiak ongi planifikatzearen eta gidatzearen garrantzia azpimarratzen duzu. Nola egiten da hori?

Ikasleek euren ikaskuntza-prozesuan egiten dituzten irakurketa-saio guztiak ongi planifikatzearen eta gidatzearen garrantzia azpimarratzen duzu. Nola egiten da hori?

Irakasleek jada egiten dute hori. Ikasgelan edozein eratako testuak (literaturakoak, historiakoak, zientzien ingurukoak...) guztiek batera irakurtzen dituztenean ezinbestean egiten den zerbait da, kontzienteki edo inkontzienteki. Maila guztietako irakasleek egiten dituzte irakurketa-saioak, batzuek sakonago besteek baino. Badiira irakurketak planifikatzen dituzten irakasleak, irakurketak ixten dituztenak, zehazki galdera mota batzuk egiten dituztenak, etab. Gure helburua irakasleei irakurketen aurrean nola jokatzeko duten ikusaraztea da, eta egon daitezkeen bestelako jokabide batzuk erakustea. Irakasleei nola planifikatu behar duten esan beharrean, gainerako irakasleek jarduteko dituzten modu guztien berri eman behar zaie; eredu bat eta bakarra eman ordez, eskain diezazkiegun era askotako ispiluak. Gainera, lan egiteko praktika errealetik ateratako ereduak dira.

Irakurketa-plana aurkezteaz, ixteaz edota haren inguruan galderak egiteaz mintzatzen zara. Argitu ditzakezu kontzeptuok?

Planifikatzeak esan nahi du irakurtzen hasi aurretik ikasleei testu horretatik zer lortzea espero den esatea. Irakurketa ixtea, berriz, irakurri duten horretatik garrantzitsuena zer den laburbiltzea da. Galderak, azkenik, modu askotakoak daude: bai edo ez motakoak, erantzun irekia dutenak, interakzioari leku egiten diotenak, etab. Testu baten aurrean irakasleek jokatzekeo duten modua aztertu dugu, 70-80 pertsonako corpus batean, eta bost elementu garrantzitsu behintzat nabarmendu ditugu: irakurketa planifikatzen dute, itxi egiten dute, galderak egiten dituzte, galdera horiei erantzuten laguntzen dute, eta ikasleekin interakzioan daude.

Batzuek soilik liburua orrialde jakin batean irekitzeko eta irakurtzeko eskatzen diete ikasleei, eta, gero, galderak egiten dizkiete; eredurik sinpleenetarikoa litzateke hori. Beste batzuek, berriz, testua irakurtzeko eskatu aurretik, testu hori zergatik irudituko zaien interesgarria azaltzen diete ikasleei, testuinguruan jartzen dute irakurgaia, eta ikaslearen aurretiazko ezagutzekin lotzen saiatzen dira; testua irakurtzen ari direlarik, ahots gorraz azaltzen diete testua nola antolatuta dagoen (paragrafo bakoitzean argumentu bat dagoela, azalpen bakoitzaren ostean adibideak datozela, testuaren amaieran laburpena datorrela...), edota tarteka irakurketa eteten dute irakurtzen ari direnaren garrantzia azpimarratzeko, lehendik ikasleek ikasi dutenari erreferentzia eginez; azkenik, testua irakurri ostean, elkarriketa-saioa irekitzen dute, galderak planteatzen dituzte guztien artean, eta, irakaslearen laguntzaz, horiei erantzuna ematen saiatzen dira. Amaitzeko, testutik ondorio nagusiak ateratzen eta barneratzen saiatzen dira. Askozaz ere konplexuagoa da bigarren eredu hori.

Laguntza-mailaren bat behar duen eta ikasgelan egiten den irakurketari esaten diozu irakurketa gidatua.

Bai, hala da. Adibidez, irakasleak

Emilio Sanchez

E

“**Testu bat ulertzeak informazioa aukeratzea eta antolatzea esan nahi du; baina nola egingo du hori ikasleak, baldin eta helbururik ez badu?**”

“**Ahots batek kanpotik gidatzen baditu, ikasleek arreta handiagoa jartzen dute testuan dauden edukietan**”

hau esaten badu: “Irakur dezagun testu hau, oraintxe komentatu dugunarekin zerikusia du-eta”, hori irakurketa gidatua dago. Irakasleak argi izan behar du testu horrekin zer lortu nahi duen, eta testuari aurre egiteko ikasleak zein egoeratan dauden jakin behar du. Baina, esan bezala, hori egiteko moduak eta moduak daude. Adibidez, testu baten aurrean ikasle talde bati zera esan diezaiokegu: “Zuek uste duzue argia toki batetik ateratzen dela eta, ateratzen den tokitik urruntzen doan heinean, gastatuz doala; baina hori ez da guztiz egia. Horrengatik, testu hau irakur dezazuen nahi dut, askok buruan duzuen ideia hori guztiz zuzena ez dela kontura zaitezten”. Beste talde bati, ostera, honako hau esan diezaiokegu: “Zuek uste duzue argia toki batetik ateratzen dela eta, ateratzen den tokitik urruntzen doan heinean, gastatuz doala. Irakurri testu hau”. Eta, azkenik, beste talde bati soilik testua irakurtzeko eska diezaiokegu. Testu berari aurre egiteko irakasleak sor ditzakeen hiru egoera arras desberdinen aurrean gaude. Edozeinek suma dezake lehen egoeran ikaslea askoz ere baldintza hobetan hasiko dela testua irakurtzen. Horrela ikusita, ez dirudi gaitza, baina, irakasle gehienek kasuan, ez da ohikoa horrelako sarrerak egitea testua irakurtzen hasi aurretik.

Zure ustez, irakurketa gidatua garrantzitsua ez ezik ezinbestekoa ere bada. Zergatik?

Ikasleen kasuan, hala da, horrek aurrean duten testua ulertzen nabarmen laguntzen dielako. Pertsona batek zerbait zehatza aurkitu nahi duela testu bat irakurtzea erabakitzen bada, ez da izango horren garrantzitsua kanpotik irakurketa gidatzea, irakurle horrek dagoeneko bai baitauka helburu bat. Baina, normalki, ez da hori gertatzen ikasleekin. Testu bat ulertzeak informazioa aukeratzea eta antolatzea esan nahi du; baina nola egingo du hori ikasleak, baldin eta ez bada daki zertarako ari den testu hori irakurtzen?

Ikasleek ereduak behar dituztela esaten duzu.

Jakina. Normalki, irakurketak beti zerbaiti erantzuten dio bizitza errealean. Adibidez, egunkari bateko editoriala irakurtzen duzu egunkari horrek gai jakin baten gainean zer dioen jakiteko; baina ez duzu guztia intentsitate berberarekin irakurtzen, ezta? Helburu bat daukazulako gertatzen da hori. Gainerakoan, testuaren amaierara iritsi arte ez zinateke testuan zehar irakurtzen ari zarena bata bestearekin alderatzeko gai izango. Testuan gauza bat edo beste aukeratzeko irizpiderik ez badaukazu, irakurritako guztia



berdina irudituko zaizu. Horrexegatik, ikasleei irizpideak eta testu bati aurre egiteko ereduak eskaini behar zaizkie, gero, lanketa hori euren kabuz egiteko gauza izan daitezen.

Eta ez al dago irakurketa gidatuaren bidez ikasleak aurretiaz gehiegi mugatzeko arriskurik?

Benetako arriskua ikasleak testuaren aurrean bakarrik uztea da. Plan batzuen arabera irakurtzen ohitzen badira, gero, euren euren planak egin ahal izango dituzte, dauden testuaren aurrean daudelarik ere.

Irizpide kritikoarekin irakurtzeko gai diren ikasleek hitz egiten da. Esan erraz egiten da, baina lortzea esatea bezain erraza da?

Ez. Helduok ere ezin dugu kritikoak izan. Horiek fantasiak dira. Kritikoak izateko, distantzia hartu behar da, distantzia hartzen duena bakarrik gertatzen da, eta hori ez zaio inori gustatzen. Gure espezieak ez du eboluzionatu une oro kritiko izateko; izan gaitzke, eta ikasleei ere lagun diezaiekegu hainbat arlotan izan daitezen, baina, beste zenbaitetan, zale amorratuak izango dira.

Ikus-entzunezkoek gero eta indar handiagoa dute, eta egunetik egunera estimulu azkarragoak ditugu. Horrek guztiak nola eragin dezake irakurritakoaren ulermenean?

Egia da irakurtzeko modua aldatzen ari dela, baina inoiz baino gehiago irakurtzen da. Badirudi zure galderan bi baieztapen daudela. Batetik, gaurko mundua ikus-entzunezkoen mundua dela ematen du aditzera, eta hori ez da egia; izan ere, idatzizko munduak inoizko presentziarik handiena dauka. Bigarrenik, galdera horretan suma daiteke irakurtzeko modua aldatu egin dela, eta hori hala da, baina, funtsean, askoz ere konplexuago egin da, inolaz ere ez sinpleagoa. Lehen baino askoz ere informazio-iturri gehiago dauzkagu, eta errazagoa da iturri horietara jotzea. Horre-

xegatik, gaur egungo errealitateak lehengoak baino askoz ere gaitasun kritiko eta metakognitibo handiagoa eskatzen du.

Baina zenbait autorek diote *multitasking*-ak edota etengabeko deskonexioak eragin negatiboa duela kontzentrazioan eta, beraz, irakurritakoa ulertzeko ahalmenean.

Gaur egun asko erabiltzen den araudia da hori, eta arrazoizkoa dirudi. Egoera hori gerok bizi dugu, eta, horregatik, onartzeko prest gaude; baina ez dago frogatuta.

Irakurmenean nolako eragina dute adinak eta aurretiko ezagutzek?

Erabakigarriak dira pertsona batek ezer irakurri aurretik dituen ezagutzak. Ulermenaren aldagaririk garrantzitsuenetako bat da aurrez dakizuna. Zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gehiago jakiteko bidea irekitzen duzu. Irakurtzen ari zaren hori aurrez dakizunarekin bat ez badator, prozesu metakognitiboak jartzen dira abian, eta prozesu horien bidez ikasten dira gauza berriak. Aldiz, ezer ez badakizu, galduta zaude, eta hori da askotan ikasleei gertatzen zaiena. Kasu horietan, komeni da kanpotik laguntza ematea. Ikasle bat ez da era horretako prozesu metakognitiboak abian jartzeko gai izango 10-12 urtera arte. Baina nik esango nuke Batxilergoa amaitu arte ere ikasle batek ez dituela zertan izan irakurketa eraginkor baterako beharrezkoak diren tresna guztiak. Eta, horrexegatik, irakaslearen egitekoa da laguntza ematea.

Beste zer aurretiko baldintza behar dira irakurmenean ahalmen ona lortzeko?

Ulermenak hainbat maila ditu. Dagoeneko dakizun zerbait ulertzeko, adibidez, ez da aurrez inolako baldintzarik behar. Futbol-talde batek partida batean zer egin duen irakurri eta ulertzeko ere, ez da aurretiko baldintza handirik behar. Baina irakurtzearen ondorioz zure pentsatzeko modua aldatu nahi baduzu, bai. Eta,



gehienetan, esanahi hori ematen diogu ulertzeari, hau da, munduaren gainean dugun ikuspegia aldatzea, zabaltea edota baieztatzea. Eta ulertzea diogunean norberaren ideiak aldatzeari buruz ari bagara, hori oso prozesu konplexua izan ohi da, gaitasun metakognitiboak behar baitira: dakizunaz kontziente izan behar duzu, irakurtzen ari zarenari erreparatu behar diozu, batoren eta bestearen arteko diferentzia ikusi behar duzu, eta aldatzeko prest egon behar duzu. Eta, horretarako, maila altuko prozesu metakognitiboak eta borondatezkoak gertatu behar dira, eta hezkuntza sistematikoko egoki baten bidez soilik eskuratzeko dira horiek.

Zer estrategiak lagun dezakete irakurmena hobetzen?

Estrategia batzuek izaera metakognitiboak dute. Horrek esan nahi du badakizula zerbait ez duzula ulertzen eta prest zaudela ulertzen ez duzun hori berrikusteko. Eta, bestetik, antolamendu-estrategiak daude. Adibidez, markatzaileak edo egiturak interpretatzen jakitea, edota informazioa hautatzeko eta antolatzeke gauza izatea. Eta estrategia horiek irakats daitezke.

Testu bat irakurri eta ulertzen lagun

Emilio Sanchez



**dezaketen
zein gida edota markatzaile nagusi
nabarmenduko zenituzke?**

Gida horiek kanpotik ahoz adieraz daitezke. Hori da, adibidez, irakasle batek egiten duena, paragrafo bat irakurri aurretik bertan zer jartzen duen adierazten duenean: “Ondoren, itsasoaren kutsaduraren zergatia azaltzen digun beste arrazoi baten berri jasoko dugu”. Baina testuak berak ere izan ohi ditu barne-gidak. Adibidez, testu batek esan dezake: “Lehen arrazoa da...”, “bigarren arrazoa...”; eta, hori irakurrita, erretorikan gaitua den pertsona batek badaki hirugarren argumentu bat etorriko dela. Beraz, hiru kasuren aurrean aurki daiteke irakurlea: ahozko markatzaileak ditu (irakasleak kanpotik ahoz azalpenak ematen dituenen), idatzizko markatzaileak ditu (testua egituratzeko eta ideia nagusiak azpimarratzeko erabiltzen direnak: “Frantziako iraultzak lau ondorio nabarmen izan zituena arlo sozialean: lehena...; bigarrena...”), edota ez du inolako markatzailearik. Egiaztatu dugu ahozko markatzaileekin ikasleen ulermena bikoiztu egiten dela, idatzizkoekin alderatuta. Hau da, ahots batek kanpotik gidatzen baditu, ikasleek arreta handiagoa jartzen dute testuan dauden edukietan. Testua erraza baldin bada, ez dio axola; baina, konplexua bada, ahoz eta kanpotik esaten denak indar handiagoa du, eta emaitza hobekia lortzen ditu, baita unibertsitateko ikasleen kasuan ere.

Bada bestelako gida indartsu bat ere: normalki, irakasle bakoitzak testuak lantzeko modu jakin bat izan ohi

du. Horrexegatik, ikasleak irakasle bakoitzarekin modu batera edo bestera jarduten ohitzen dira. Behin eta berriz errepikatzen den jarduteko modu hori ere gida bat da, eta oso indartsua, gainera.

Adibiderik jar dezakezu?

Adibidez, guk grabatu ditugun irakurketa gidatu askok ondoko egitura dute: irakasleak ikasleei esaten die 50. orrialdea irekitzeko eta irakurtzeko, eta, ondoren, galderak egiten dizkie. Kasu horretan, ikasleek badakite irakasleak zerbait irakurtzeko eskatzen badie, gero galderak etorriko direla. Zeri buruz? Edozeri buruz. Ez da lan egiteko modurik ereduagarriena, gerta baitaiteke ikasleak irakurri duenari zentzurik ez aurkitzea, arreta zertan jarri ez jakitea, eta, horren ondorioz, testutik ezer garbirik ez ateratzea. Irakasle guztiek ez dute horrela jokatzen, denetarik dago, baina ikasleak irakasle bakoitzarekin harekin tokatzen den bezala jokatzen ohitzen dira. Ohitura horrek kasu batzuetan ikaslearen ikaskuntza-prozesua lagunduko du; beste batzuetan aldiz, oztopatu.

Beste hainbat kasutan gertatzen da irakasleek irakurgaia oso ongi planifikatzen dutela eta ikasleei ere testu hori irakurtzearen helburua zein den adierazten dietela, baina, gero, esan dietenaren eta egiten dizkieten galderen artean ez dagoela koherentziarik. Hortaz, ikasleak zera esan dezake: “Irakasle honekin, planari oso adi begiratu behar diot, ondoren plan horren arabera galderak egingo baitizkit”, baina horrekin ez da nahikoa. Irakasle batek kontrolpean izan behar du prozesu guztia, eta aurreratu duenaren gainean galdetu behar du, eta planifikatu duenaren arabera itxi. Hori guztia ez da hain sinplea, eta, arrazoi bategatik edo besteagatik, batzuetan, egiten dugunaren gaineko kontrola galtzen dugu irakasleok.

Hamabost urte daramatzazu gidatutako irakurketa-prozesuak aztertzen eta lantzen. Zein ondorio nagusi ateratu duzu?

“Galdera irekiak eginez gero, aukera bat baino gehiagorekin funtzionatzen ikasten du ikasleak”

“Ikasleak plan batzuen arabera irakurtzen ohitzen badira, gero eurek euren planak egin ahal izango dituzte, dauden testuaren aurrean daudelarik ere”

Irakurketa gidatuak egiteko modua zenbat eta sinpleagoa izan, orduan eta jende gehiagok erabiltzen duela formula hori. Aldiz, gidatzeko modua konplexuagoa egiten doan heinean, irakasle gutxiagok erabiltzen dute. Horrekin esan nahi dut, lehen jarri dudana argiari buruzko testuaren adibidean “Zuek uste duzue argia toki batetik ateratzen dela eta ateratzen den tokitik urruntzen doan heinean gastatuz doala, baina hori ez da guztiz egia. Horrexegatik, testu hau irakur dezazuen nahi dut, askok buruan duzuen ideia hori guztiz zuzena ez dela kontura zaitezten” esaldia irakasleen gutxiengoak erabiltzen duela, nahiz eta irakurritzko ulermena bideratzeko baliagarriena huraxe izan; aldiz, gehiengoak “ireki 50. orrialdea eta irakurri” ereduak erabiltzen dutela, horrek ikasleen irakurmena hobetzeko ia inolako baliorik ez duen arren.

Objektu zientifiko bat bailitzan ikertzen



duzue irakurketa.

Bai, gaur egun zorte izugarria daukagu irakurketa objektu zientifiko bat delako. Arrazoia sinplea da: irakurtzen ari garenean begiak nola mugitzen diren erregistra dezakegu. Hortaz, azter dezakegu ikasleek irakurketa-segmentu bakoitzean igarotzen duten denbora zenbatekoa den eta ea segmentu batetik bestera aldatzen den edo ez. Milisegundotan jakin dezakegu zer ari den gertatzen. Begiek oso ongi islatzen dute gure burmuina. Begiak zerbaiten aurrean geratzen badira, gure burmuina ere geratu delako da. Emaizak garbiak dira. Ikasleek irakurketa-helburu bat badute, haien begiak eta burmuina gehiago geldituko dira helburu horrekin bat egiten duten testuko elementuetan. Irakurketa-helbururik ez badaukate, beren baliabide guztiak indarra non jarri jakin gabe xahutuko dituzte. Hori horrela da ia adin guztietan. LH1eko haurrek berezkoa dute hori, baina baita DBHko, Batxilergoko edota Unibertsitateko ikasleek ere. Xede batekin irakurtzen dugu beti. Batzuetan, nahi hori gure barnean izaten dugu; beste batzuetan, berriz, kanpotik ematen zaigu testu zehatz bat irakurtzearen zentzua.

Nola eboluzionatu du azken urteetan irakurketak gidatzeko moduak?

Askotan, hezkuntzaren arloan gauzek berdin jarraitzen dutela esaten bada ere, hori ez da horrela, eta lan egiteko moldeak asko ari dira aldatzen. Gelako diskurtsoa lantzen hasi zenean, galdera-erantzuna-ebalua-zioa zen formula. Baina galderak itxiak izan ohi ziren, erantzun bakarrekoak. Orain erabiltzen den eredu ohikoena apurtxo bat konplexuagoa da. Galderak irekiagoak dira, ez dute erantzun bakarrik izaten. Ikasleek badakite erantzuteko modu bat baino gehiago izan ditzaketela. Modu hori askoz ere konplexuagoa da. Izan ere, erantzun itxiko galderak eginez gero, ikasleak badaki irakasleak gertaerei buruz galdetuko diola, eta horretara

ohitzen da; aldiz, galdera irekiekin aukera bat baino gehiagorekin funtzionatzen ikasten du ikasleak.

Zer eragin izan dezake gidarik gabeko irakurketa linealak ikasleengan?

Ikasleari kanpotik gidak eskaintzen ez bazaizkio eta testuak berak barne-gidarik ez badu, ikaslea kasurik gehienetan ez da gai gida horiek identifikatzeko, eta, horren ondorioz, ikasleak irakurketa erabat homogeneoa egingo du ezinbestean. Irakurtzen duen guztiak garrantzia berbera izango du, ez da gauza izango ideia nagusiak bereizteko, ezta modu esanguratsuan irakurtzeko ere. Informazioa pilatzea izango da bere egiteko bakarra.

Zure azalpenei jarraituta ez dirudi hain zaila irakurketak gidatzea.

Hain zuzen ere, kasu honetan arazoa ez da irakurketa gidatuak zer esan nahi duen ulertzea, nork ez du hori ulertzen? Baina, orain, har ezazu testu bat ausaz eta galdetu: “Zer nahi dut nik testu honetatik?” Norbaitek galdera horri erantzutea erraza dela uste badu, erratuta dago. Ondoko hau ere galde daiteke: “Testu honetatik, zer izan daiteke interesgarria ikaslearentzat?” Batzuetan, hobe da galdera hori ez egitea. Nola ikasten da zein testu den egokia eta zein ez? Ez da erraza, baina egia da modu asko daudela planifikatzeko. Beraz, bakoitzak aukeratu behar du zein nahi duen.

Eskolak behar den bezala erantzuten dio irakurmena hobetzeko beharrari?.

Nik uste dut, dagoen bezala egonik ere, eskola dela gizarte honek duen instituziorik onenetarikoa. Zoritxarrez, beste era batekoa izatea nahi luketen pertsonen presiopean dago, eta akaso beste era batekoa izan behar du, baina ez dugu ahaztu behar eskolak izugarritzko balioa duen erreminta kultural bat, irakurketa, orokortzea lortu duela urte gutxian, eta horrekin harro egon beharko genuke.



0-3. Hezitzaileen formazioa

Waldorf eta Pikler uztartzen

“Haur bakoitzak behatu eta errespetatuko dituen ikuspegi bat behar dute hezitzaileek”

Emmi Piklerren pedagogia eta Rudolf Steiner filosofo alemaniarrek garatu zuen Waldorf pedagogia uztartu zituen Sonia Kliass pedagogoak maiatzeko saioan. Piklerrena eta Steinerrena jatorri oso diferenteko ildo pedagogikoak izanagatik ere, Kliassengan oso bateraturik ageri dira; “ezaugarri batek batzen ditu bi ikuspegiak: begiratu egiten diote umeari. Haurrak oso sakon behatu dituzten autoreek eginiko gidak dira niretzat bi ildo hauek; haurren beharrak, garapena... oso ondo ezagutzen dituzten ildoak dira eta, gauregun, hodeietan bezala bizi garen garai honetan, behar dugu haurrarengana jaitisiko gaituzten euskarriak”.

Kliassek 18 urte daramatza Emmi Piklerren pedagogian murgildurik, eta ondoren sartu zen Waldorf filosofian. Rudolf Steinerrek Waldorf metodoa Lehen Hezkuntzarako prestatu bazuen ere, Kliass eta beste hainbat hezitzaile ikuspegi horren muina 0-3 etaparako egokitzen ari dira, eta horretan helduleku garrantzitsua izan



Sonia Kliass Waldorf pedagogiaren eta Piklerren gainean aritu zen.

da Emmi Piklerren lana. “Rudolf Steinerrek berak Lehen Hezkuntzatik aurrerako eskolak sortu zituen, naturarekiko harremanetan, ezagutza intelektuala eta etengabeko praktika artistiko eta artisauen arteko orekan, konfiantzan oinarriturik eta “mundua ona da” ideia transmititzeko bokazioarekin, besteak beste. Ondoren, familiak haurtxikiak eskolatzeko beharra izan dutenean, Haur Hezkuntzara

egokitu zuten Steinerren ikuspegia eta azken hamarkadan 0-3 ziklora egokitzen ari gara, Waldorf haur eskoletan. Kontua, ordea, ez da 7 urtetik aurrerako haurrekin egiten den lana 0-3ra ekartzea, ez; kontua Waldorf pedagogiaren ikuspegia egokitzea da”. Kliassen arabera, honako galdera hau da Waldorf ildotik 0-3 etapako haurrekin lan egitera datorren hezitzaile batek bere buruari egin behar kiokeen lehen galdera: ‘Nola eskaini atentzio profesional bat oraindik bere gurasoekin egoteko premia duen haur bati?’. Profesional bakoitzak erantzun behar duen galdera da Kliassen arabera, eta horretarako, formazioa, baliabideak eta “batik bat haurrak —haur bakoitza— behatu eta errespetatuko dituen ikuspegi bat” behar dute hezitzaileek.

Waldorf haur-eskolek Emmi Piklerren pedagogian helduleku sendoa aurkitu dute Steinerrek formulatu zuen filosofia 0-3 ziklora egokitu eta osatzeko. “Izan ere, Piklerrek ikuspegi berritzaile bat ekarri zuen pedago-

giara, honako galdera honi erantzunez: nola garatuko lirateke haurrak helduak esku hartuko ez balu edo beste era batera esku hartuko balu? Horretarako haurrak behatu zituen Piklerrek, eta ikusi zuen haurrak osasuntsu eta harmonian hazteko askatasuna behar dutela, mugitzeko, ekiteko, jolasteko askatasuna. Seguru eta maitatuak sentitzen baldin bada haur bat, baldintza egokietan, askatasuna baldin badu, haurrak berak dituen gaitasun guztiak azaleratzen direla ikusi zuen Piklerrek”. Waldorf pedagogiarentzat ere askatasuna oinarritzko baldintza da, eta hor dago, Kliassen aburuz, bi ildo pedagogikoen bateragunea. “Haur bakoitza pertsona bakar gisa hartzen du Waldorf pedagogiak, askatasuna oinarritzko baldintza da eta haurrarekiko errespetua ere bai, hauraren erritmoak errespetatzen dira, haur bakoitzaren erritmoak, garapen maila aspektu guztietan, motrizitatean, idazkuntzan, hizkuntzan...”

Behaketak antzeko ondorioetara eramane zituen, bada, Pikler eta Steiner: ikusi zuten helduaren esku-hartzerik gabe, baldintza egokian dagoen haur bat bere kabuz garatzeko eta bere barneko onena ateratzeko gai dela. “Haur bakoitzaren barruan inteligentzia eta gaitasun handiak ari dira lan egiten, eta inteligentzia eta gaitasun horiek mailarik gorenera arte gara daitezene garrantzitsua da behatzea, ikastea, lagun egitea eta zaintzea, eta hori guztia gauzat ahal izateko ingurune egoki bat eskaintzea; zaintzea, baita ere, bere bizi prozesuak, organismoa, harremanak... baina 0-3 etapen diharduen profesional batentzat bereziki garrantzitsua da haur horrek mundu honetan bide bat egingo duela ulertzea, eta guk ez dakigula zein den bide hori, baina, hala ere, errespetatzea bide hori, bere nortasuna eta dakarren asmoa”. Hori guztia bete dadin, eta 0-3 etapen haurra ondo ga-



ratu dadin, berebiziko garrantzia dauka mugimenduak, “ekintzari esker deskubritzen baitu haur horrek mundua eta bere gorputza. Horregatik, mugitu dadin, esperimenta dezan, ekiteko eta bere gorputza ezagutzeko eta lantzeko leku seguru bat bermatuko dio haurrari Waldorf-Pikler ildoak, eta baita material egokia ere—beti naturala hobetsiz plastikoaren aurretik—.”

Garapen hori bultzatzen duten zentzumenetan arreta jarri zuen Stei-

nerrek eta ikusi zuen zentzumen uki-garriez gain, bazirela garapenean eragiten duten zentzumen ez ukigarriak ere. Hala azaldu zuen Kliassek: “Zerk eragiten du haurrak buelta hartzea? Zergatik haur guztiek, une batean, objektu bat hartu eta ahora eramateko bulkada dute? Ez dakigu zein den arrazoia; ez dago, gainera erantzun bakarra, baina arrazoia ez da ukigarria, hori argi dago. Ukigarriak ez diren zentzumen horiek ere zaindu egin behar ditugula ohartarazi gin-



tuen Steinerrek”. Pentsalari alemaniarrak “izpiritu” gisa izendatu zuen garapena bultzatzen duen indar hori. Nola hala deitu, ukigarria ez den horretara iristeko ikuspegia zabaldu behar dugula diosku Kliassek: “XIX. mendetik datorkizun ikuspegi materialistaren zama dugu oraindik bizkar gainean, baita hezitzaileok ere: ikusi, neurtu, ukitu, usaindu... dezakegun horretan bakarrik sinisten dugu gaur egun oraindik, nahiz eta zientziak dagoeneko ez duen ukigarri diren aspektuetan bakarrik lan egiten. Ikuspegia aldatu behar dugu, ukigarriak ez diren elementuek —pentsamenduak, emozioek...— indar eta eragin handia baitaukate”.

Oso testuinguru diferenteetan egin zituzten euren behaketak eta proposamenak Emmi Piklerrek eta Rudolf Steinerrek. Lehenak iragan mendeko 40ko hamarkadatik aurrera garatu zuen bere ikerketa eta praktika Budapesteko Loczy umezurztegian. 1970. urtean Loczy Hungariako umezurztegiako institutu metodologiko

nazionala izendatu zuten, eta 1984an hil zen Emmi Pikler Budapesten bertan. Ondoren, bere obraren jarraitzaileek, Pikler-Loczy izena jarri zioten institutuari, eta 1989az geroztik fundazio bezala funtzionatzen ari da. Rudolf Steinerrek (Austria, 1861-Suitza, 1925); , berriz, Lehen Mundu Gerraren ondoren Emil Mol enpresariaren enkargu bat jaso zuen; Stuttgart-eko Waldorf zigarro fabrikako langile guztien seme-alabentzat eskola libre bat antolatzea eta zuzentzea. Bost urtez jardun zuen lan horretan, eta pedagogia berri baten oinarri metodologikoa eta didaktikoa ezarri zituen, Waldorf pedagogia gisa ezagun egin zena: giza naturaren ezagutza sakonetik aibatzen den pedagogia bat landu zuen eta gizakiaren garapen etapetara egokitu zuen; Hezkuntza-eredu bizi eta sozial gisa ulertzen zuen Steinerrek, eta haren ustez, hezkuntza artelan baten moduan landu behar zen, giro aske eta sortzailean. Steinerrentzat hezkuntza da aldaketa sozialaren motorra. Gaur egun, munduko

mugimendu pedagogiko libre garrantzitsuena da, eta lau bat mila Waldorf eskola daude mundu zabalean.

Izan Emmi Piklerren ikuspegia, Rudolf Steinerren filosofia edo beste teoriaren bat izan, Sonia Kliassek dio hurrekin lan egin behar duen pertsona orok —“eta bereziki hezitzaileok”— barneraturik, integraturik eta norbere iragazkitik paseak izan behar dituela teoria eta metodo guztiak. “Entzuten eta irakurtzen dugun guztia norbere iragazkitik pasatzea oso garrantzitsua da gaur eguneko jendartearen, bestela teoriak horretantxe gelditzen dira, teoriarik; eta moda batek ekartzen ditu eta beste batek eramaten, baina hezkuntzan ikuspegi aldaketa bat behar dugu, ez etorri eta joaten diren modak”. Waldorfen kasuan metodoaz hitz egiten da mundu mailan, Lehen Hezkuntzan bai baitago ezarririk Steinerrek proposaturiko lan egiteko modu zehatz bat, baina metodoari baino gehiago hurrei behatzeko ikuspegi orokorra interesatzen zaio Kliassi.



HEGOALDE ESKOLA

Gela alternatiboa

Iruñeko Arrosadia auzoan dago Hegoalde ikastola. Eskola euskaldun publiko honek, orain dela hiru ikasturte, gela alternatiboa abian jartzeko apustua egin zuen. Gela horretako tutorearekin egon gara, gela horren berri izateko.

Zer da gela alternatiboa?

Ikastetxe arruntetan dauden hezkuntza bereziko ikasgelen ordezkak dira. Eskolatzeko-modalitatea heziketa bereziko ikastetxe espezifikoak duten ikasleek osatuta dago.

Ikastetxeetako eta geletako hezkuntza-errealitateak argi erakusten digu egoera berezietan erantzuteko curriculum-egokitzapeneko neurriak baino zerbait gehiago eskatzen duten egoerak daudela. Ikastetxe arruntetan bidezko egokitzapenak egin ondoren ere curriculum arruntari jarraitu ezin dioten edo neurri txiki batean bakarrik jarrai diezaioketen ikasleei arreta emateko sortu dira **gela alternatiboak**.

Ikasgela horiek pedagogia terapeutikoko espezialitatea duen irakaslearen ardurapean egoten dira, eta irakasle horrek tutore-funtzioak betetzen ditu. Zaintzaileak ere badituzte, eta horiek, irakaslearen laguntzaz, ikaslearen autonomia eta garapen per-



sonala bultzatzen dituzte.

Hainbat espezialistak ere esku hartzen dute gela horretan, entzumen eta hizkuntzako espezialitatea duen irakasleak eta fisioterapeutak, adibidez, beharrezkoa den kasuetan.

Gure gela 2011-2012 ikasturtean jarri zen abian; bi ikaslerekin hasi ginen, ilusio handiz, proiektu berri honen arrakasta bultzatu nahian. Ekainerako, bai ikastetxea eta bai familiak pozik ginen izandako emaitzekin, bai eta gela horrek ikastetxeari ekarri zizkion onura guztiekin ere. 2012-2013 ikasturtean, hiru ikaslerekin aritu ginen, eta, aurten, lau ikasleek osatzen dute gela.

Gela horiek arrakasta izan dezaten, garrantzi handia dute hainbat baldintzak, bereziki, ikaslearen hezkun-

tza-premia berezietan bultzada emateko nahitaezkoak diren baliabide pertsonalak izateak, banan-banako lana behar baitute etengabe.

Nola lantzen da inklusioa gela horietan?

Gela horiek ikastetxe arruntetan egoteak hezkuntza-premia berezi eta oso desberdinei banakako arreta emateko baldintza onenak eskaintzea ahalbidetzen du. Bestalde, ingurune normalizatuan kokatuta dagoenez, balioak eta jarrerak sustatzeko oso aukera interesgarriak eskaintzen ditu, bai gizarteratzeko eta bai ikastetxeko ikasle guztiekin lan kooperatiboa egiteko, ikastetxearen espazio fisikoan integratuta baitago.

Ikasketaren eremua ez da gela alter-



antzerkiak, jolas librea, plastika... Oso pozik etortzen ziren gure gelara, eta premia bereziko ikaslearekin harreman estuagoa izaten zuten, irakasleok ere gehiago ahalbidetzen baikenuen beraien arteko harremana eta komunikazioa.

Gela alternatiboa nola antolatzen eta programatzen den

Nahaste sakonak eta orokorrak dituzten pertsonak zailtasunak dituzte egunean zehar izango diren jarduerak eta gertakariak ezagutzeko nahiz beraiengandik zer espero den jabetzeko, eta ulertezintasun horrek portaera-arazo ugari eragiten ditu gehienetan. Kasu horietan, beharrezkoa da ingurune fisikoa oso modu egituratua diseinatzea, horrela, ikasleari eguneroko gertakariak aurreikusteko gaitasuna eskuratzea ahalbidetuko baitzaio, mugitzen den denbora eta espazioa egituratzen lagunduko zaionez.

DENBORAREN ANTOLAKETARI DAGOZKION HAINBAT JARDUERA

ERRITUALAK: ikasleak goizean ikastolara iristean egiten dugun jardura da. Gutxi gorabehera ordubeteko iraupena du, eta esanguratsuak diren jarduerak lantzen ditugu. Oso garrantzitsua da errepikatuz eta beti modu berean egitea, horrek segurtasun handia ematen dielako ikasleei eta aurreratzen

natibora mugatuko, esanguratsuak diren beste espazioetara ere zabalduko da. Ikaslearen arabera, integrazio-jarduerak programatuko dira, eta adineko beste ikasleekin ahalik eta harreman egokiena bultzatuko da.

Hegoalde Ikastolan, gela alternatiboko ikasle bakoitzak erreferentzia-gela bat du, hau da: adin bereko ikaslearen geletan integratzen dira. Haur Hezkuntzako adina duten ikasleak Haur Hezkuntzako geletan integratzen dira, jolas librea lantzen den saioetan. Lehen Hezkuntzako adina dutenen kasuan, berriz, Heziketa Fisikoa, Musika eta Plastika integratzen dira, zaintzaileen laguntzarekin beti.

Horrez gain, erreferentzia-taldeko irteeretan parte hartzen da, baita egun berezi guztietan ere: Olentzero egunean, Inauterietan, Agate Deunaren egunean, Euskal Astea...

Bestelako espazio komunetan, ahalik eta inklusio egokiena bultzatzen saiatzen gara; jantokian, adibidez, erreferentzia-taldeko lagunekin bazkaltzen saiatzen gara; patioetan, ahalik eta harreman gehien bultzatzen ahalegintzen gara. Baina esan beharra dago, hau guztia posible izateko, Hezkuntza Departamentuak eskaintzen dituen baliabideen menpe gaudela.

Inklusio on bat ahalbidetzeko, oso garrantzitsua da ikastetxeko helduen jarrera ere. Hegoalde Ikastolan gela hau abian jarri genuenean eta gure ikasleak integratzen hasi zirenean, ikasleek mila galdera egiten zituzten: "Gaixorik al daude? Gu baino txikiagoak dira? Zer gertatzen zaie?". Heduok galdera horien aurrean ikasleei eskaintzen dizkiegun erreakzioetan oinarritzen da inklusioaren arrakasta.

Proiektu honen lehenengo urtean, alderantzizko integrazioak egin genituen, eta asko lagundu zuten ikaslearen inklusioan. Astean behin, erreferentzia-gelako ikasle talde bat gela alternatibora etortzen zen, hainbat jardura egitera: mahai-jolasak,



ikasten laguntzen dielako. Jarduera horiek errealitatearen argazkiekin egiten ditugu, ikasle horiek errepresentaziorako dituzten zailtasunak ekidin ditzagun eta, etengabe hitz idatziekin lagunduta, letren mundura ohi daitezten. Sarrerako abestia kantatzen dugu, *Joan-etorriko koaderno*a irakurtzen dugu, nortzuk etorri diren, nortzuk ez diren etorri, nola etorri garen, zenbat etorri garen ikusten dugu, egiten duen eguraldia eta arropa lantzen ditugu eta jan-tokiko menua aurreratzen dugu.

Aipatzekoa da *Joan-etorriko koaderno*aren funtzioa, familiekiko koordinazioa eta lana asko errazten duela. Gurasoek, gauero, arratsaldean ikasleek etxean egin dutena idazten dute koaderno batean, eta, goizean ikastolara iristean, irakurri egiten dute ikasleek. Ikastolan, arratsaldean, egun osoan zehar egin duguna idazten dugu, eta gurasoek, ikasleekin batera, etxean irakurtzen dute. Lan horri esker, ikasleak ulermena hobetzen ari dira, eta ikastolaren eta gurasoen arteko lotura estuago eta jarraitua da.

EGUNEKO JARDUERA: ikasle hauentzat denboraren kontzeptua barneratzea zaila denez eta astelehena edo osteguna den jakiteak zentzurik ez duenez, jarduera esanguratsu bat egiten dugu egunero, zer egunetan daudden kokatzen jakin dezaten: astelehena, ordenagailuko jolasak egiten di-

tugu; astearteetan, plastika; asteazketan, proiektuaren pelikula (bideoa) ikusten dugu; ostegunetan, musika-terapia; eta, ostiraletan, igerilekura joaten gara.

KOMUNIKAZIOA: komunikazioa modu zehatzean lantzeko, goizeko lehenengo orduak baliatzen ditugu, ikasleak erneago eta zentratuago egoten direlako; baina etengabe egun osoan zehar landu beharreko atala da, gure lanaren ardatz nagusietako bat baita eta egunean zehar komunikazio-uneak etengabeak baitira. Komunikazioa modu zehatzean lantzeko, bi metodologia mota erabiliko ditugu: PECS eta BIMODALA.

PROIEKTUAK: ikasturteko programazioa proiektuetan banatuta dago. Proiektuen oinarrian, bideo bat dago, musikaz eta oso irudi sinplez osaturikoa. Bideo horren gaia ardatz nagusitzat hartuta, dagokion ipuina, piktogramez osatutako hiztegia, musika eta plastika antolatzen ditugu. Ikasleak motibatuago azaltzen dira, gelako jardun guztia gai baten inguruan antolatuta dagoenean.

ESTIMULAZIO SENTSORIALA: zentzumenei esker, mundua ezagutzen dugu, eta mundu horrekin harremanetan jartzen gara, gure ikaste-prozesua egokituz. Gure ikasleen kasuan, zentzumenen garapena desberdina da, eta munduarekin eta errealitatearekin

desberdin erlazionatzen dira. Horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu zentzumena lantzea, errealitatea gero eta hobeto ezagutzeko eta komunikazioa hobetzeko. Entzumena, ukimena, usaimena, dastamena eta ikusmena estimulatu dira.

LANTEGIAK: proiektuaren arabera, lantegi bereziak antolatzen ditugu. Ikasturte honen hasieran baratza landu genuenean, ikastolako baratza ekologikora joaten ginen egunero; elikagaien proiektuan, sukaldaritzako lantegia egin genuen, eta masaje-lantegiak antolatu genituen, gorputzaren ezagutza bultzatzeko.

ESPAZIOAREN ANTOLAKETA

Ikasleek errazuler ditzaketan eta ingurunearen nolabaiteko kontrola izatea ahalbidetuko dieten gako bidez egiten da. Espazioaren antolaketa arako, piktogramak eta argazkiak erabil daitezke, eta oso ongi eta garbi banatu behar izaten da gela. Gelako txoko bakoitzak funtzio bakarra izan behar du, ikasleek leku bakoitzean beraiengandik zer espero den jakin dezaten. Honela antolatu dugu gure gela:

Sarrerako txokoa. Ikasleek, gela sartzean, etxetik ekarritako objektuak kutxa batean sartzen dituzte beti, eta txamarra edota motxila gakoetan zintzilikatzen dituzte.

Bakarkako lanerako txokoa. Ikasleek kontzentrazioari eusteko zailtasun larriak dituztenez, bakarkako lanerako txoko berezia dute. Txoko hori ikusmen-estimulaziorik gabeko lekua da, eta, ahal den neurrian, zarata gutxi-ko lekua ere bada, ikasleek arretari eusten dioten txokoa da, alegia.

Talde-lanerako txokoa. Taldeka egiten dugu lan txoko honetan, mahai-jolasak, plastikako jarduerak, hamaketakoa...

Autonomia-txokoa. Arropa janzteko eta erantzeko aulki bat dago txoko honetan, eta piktogramez seinaleztatutako arropa eta kutxa.

Ordenagailuaren txokoa. Programa errazen bidez, kausa-efektu erlazioa ikasten dugu.





Jolas-txokoa. Jolas sinbolikorako eta jolas librerako txokoa da.

Estimulazio sensorialerako txokoa. Lurra lastairaz babestuta dago, eta ispilu handi bat dugu. Txoko horretan, motrizitate larria eta estimulazio sensoriala lantzen ditugu. Usaimena eta ukimena lantzeko panelak ere badaude txoko horretan, bai eta tunel bat ere.

Liburutegiaren txokoa. Irakurzaletasuna bultzatzeko lekua da.

Informaziorako txokoa. Aurretik aipatutako erritualak txoko honetan lantzen ditugu.

Lasaitzeko txokoa. Ikasleek pixkana emozioak bereizten ikas dezaten erabiltzen dugun txokoa da. Ikasleren bat haserre, triste, pozik...sentitzen bada, lasaitzeko txokora joan daiteke, eta sentitzen duen horri marrazkia jartzen laguntzen diogu. Beste batzuetan, guk eramaten ditugu txoko horretara, eta emozio horri dagokion aurpegia erakusten diogu.

Komunikazio-panela. PECS lantzeko erabiltzen ditugun argazkiak jarrita daude txoko horretan, eta ikasleek bertatik hartzen dituzte, zerbait eskatu nahi dutenean.

Ze onura ekar diezazkioke gela alternatiboak ikastetxeari?

Gela alternatiboko gure ikasleak ingurune arruntetan hezten dira; helduon zeregina da ahalik eta giro normalizatuena bermatzea, egoki gizarteratzeko. Modu arruntean garatu diren lagunekin harremanak izatea zeharo positiboa da haien garapenerako. Guztiok dakigunez, ikasleek ez dute bakarrik helduekin ikasten, beste haurrekin harremanetan eta haien jarrerak imitatuz ere asko ikasten du-

te. Horregatik, premia bereziak dituzten ikasleen garapena osoagoa da eremu normalizatu eta erreal batean.

Baina onurak ez dira norabide bakarrekoak, eta ikastetxeko beste ikasle eta irakasle guztiak ere onura asko jasotzen dituzte gela alternatiboari esker. Lehia helburu dugun gizarte honetan, hezkuntza-premia bereziko ikasleek gure begirada zabaltzen laguntzen digute, eta, horri esker, desberdintasunak eta gaitasun mota guztiak onartzen. Urte hauetan izan dugun esperientziari esker, esan dezakegu hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak integratzen diren gelaetan, bestelako ikasleek tolerantzia handiagoa azaltzen dutela, itxaroten hobeto ikasten dutela, ongi ulertzen dutela gaitasun desberdinetako pertsonak garelako guztiok eta bakoitzaren erritmoa errespetatu behar dela; eta, batez ere, guztiok elkarbizitzarako gaitasuna dugula, desberdintasunen gainetik. Gure lankide batek hala esan zuen behin: "Ikastetxerako opari bat da!"

Hala ere, esan beharra dago, lan handia dugula guztiok aurretik. Gela honen funtzionamendua egokia izan arren, integrazio hutsean gaude oraindik. Kontzientzia eta begirada zabaltzen joan behar dugu gure gizar-tean, ikasle guztien benetako inklusioaren alde.



Xaldun kortin, jolastu gurekin!

EuskoKultur Fundazioak, Bortzirietako Mankomunitateak eta Labrit Multimediak Nafarroako haur-jolasak, kantuak eta kontuak jaso dituzte liburu, CD eta DVD banatan, Nafarroako ahozko ondarea berreskuratzeko eta euskaraz dakiten eta ez dakiten familiak seme-alabekin hizkuntza horretan jolas daitezzen.

Kantuak, kontuak, hatz-jolasak, jokoak, abestiak..., haurrek, haur direnetik, hizkuntza erabili dute jolas-teko. Alabaina, hainbat lekutan eten egin da ahozko ondarearen transmisio hori, esate baterako, Nafarroako hainbat herritan. Euskarak, eta, bereziki, ahozko ondareak, Euskal Herriko gune horretan duen hutsunea betetzeko asmoz, Xaldun Kortin proiektua gauzatu du EuskoKultur Fundazioak, eta kantuz eta kontuz osaturiko liburu bat, CD bat eta DVD bat argitaratu berri ditu.

EuskoKultur Fundazioak urteak daramatza Nafarroan euskarazko ondarea jasotzen. Fundazioak material ugari apailatua zuela ikusirik, beste erakunde batzuekin elkarlanean jarri, eta material horri irtenbide bat ematea ebatzi zuen. Horrela, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Labrit Multimedia bidelagun hartuta, Xaldun Kortin proiektuari ekin zion, hainbat material bildu eta argitaratzeko.



tuari ekin zion, hainbat material bildu eta argitaratzeko.

Xaldun Kortin proiektuarekin bi helburu bete nahi dituzte atzean dauden taldeek: alde batetik, garai bateko ondarea berreskuratu nahi izan dute, eta, bestetik, ondare hori guztia gurasoen eskura jarri nahi izan dute, jolas, abesti eta hainbat bitartekorekin euskara sustatzeko.

Liburuan, CDan eta DVDan argitaratu duten materiala biltzeko, Nafarroako eskualde euskaldunetako jendea elkarrizketatu zuten, aitona-amonak eta adineko jendea gehienbat. Denboran atzera egin, eta ume zireneko garaian kantatu eta kontatu izan zituzten jolasak, abestiak, ipuinak, etab. bildu eta ikertzeari ekin zion fundazioak.

Jaso duten materialaren zati bat bere horretan argitaratu dute hainbat

euskarritan, baina beste hainbat material moldaketak egin behar izan dizkiete, abesti batzuk doinurik gabe jaso baitzituzten.

Bilketa egin ostean, grabaketan unea iritsi zen eta, horretarako, hainbat herritako haur eta taldeen laguntza izan dute, zehazki Iruñeko San Frantzisko Eskola Publikoaren laguntza, Atarrabiako Paz de Ziganda Ikastolarena, Bortzirietako bertso-eskolarena, Aralar musika-eskolarena, Elizondoko abesbatza txikiarena eta Ribaforadako San Bartolome ikastetxeko A ereduko ikasleena. Haurrez gain, Porrotx pailazoak ere parte hartu du grabaketetan, Nafarroan barrena, herriz herri ahozko ondarea ezagutzeko egindako bidaia jaso baitute.

Bilketa eta grabazioak bukatu ostean, materiala argitaratzea bakarrik

falta zen, eta hiru euskarri erabili dituzte horretarako: liburua, CDa eta DVDa. Era horretan, Nafarroan urte askoan kantatu eta kontatu izan diren jolas eta abestiak familia guztien eskura jarri dituzte, euskaraz dakiten eta ez dakiten familien eskura, guztiek izan ditzaten seme-alabekin etxean euskaraz jolasteko tresna baliagarriak.

Liburua

Liburuan, kantu eta kontuak aurkitzeaz gain, haur-hizkeraren hiztegia eta etxean euskara erabiltzeko gomendioak ere aurki daitezke. Haurrekin lotutako ahozko ondarearen bilketan sakondu nahi duten guztiei zuzenduta dago liburua. Hezitzaileek bilketa-lan guztiaren emaitza izango dute eskura, herriz herriko sailkapenarekin. Gainera, herrien arteko desberdintasunak eta Nafarroa Garaiko euskalkien berezitasunak ere jaso dira liburuan. Bestalde, geletan lantzeko material ugari dakar euskarri horrek, hala nola, zenbakiak eta gorputz-atalak ikasteko ipuinak, abestiak eta beste hainbat material erabilgarri.

Familia-giroan lantzeko ere proposa da liburua, guraso eta seme-alabek elkarrekin abesteko doinu eta jolasak eta hizkuntza lantzeko baliabide ugari eskaintzen baitira bertan.

Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsez dago idatzita, Nafarroako hainbat errealitate linguistiko hartu nahi izan baitituzte kontuan materiala argitaratzerakoan, euskaldunek zein, euskaraz ongi jakin ez arren, hizkuntza horren aldeko jarrera dutenek ere erabili ahal izan dezaten.

DVDa

DVDak bi atal ditu: alde batetik, proiektu honetan bildutako jolas eta abestiak egunerokotasunean eta familia-giroan nola erabil daitezkeen ikusi ahal izango da; eta, bestetik, Porrotxek Nafarroako ahozko ondarea

ezagutzeko egindako bisita ere ikusi ahal izango da; eskualdez eskualde, tokian tokiko kantu eta kontuak kontatzen dizkiote haurrek pailazoari.

CDa

Diskoan hainbat herritako kantuak argitaratu dituzte, tokian tokiko haurrek kantatuta. Kantuez gain, ipuinak, jolasak edota lo-kantak ere aurki daitezke.

Bestalde, euskarri birtual bat ere badu Xaldun Kortinek, www.xaldunkortin.com webgunea. Atari hori, gainera, etengabe berritzen da, bideo, abesti eta albisteekin.

Materiala salgai dago jada, bai liburu-dendetan eta baita webgunean ere. Bortzirietako euskara-zerbi-



tzuek, bestalde, aurten jaioko diren haurren familiei oparituko diete bilduma. Gainera, materiala nola erabili ikasteko gurasoentzako bi orduko ikastaro laburrak eskaintzen hasiak dira.



ARGANTZON IKASTOLA

Trebiñun bizirik irauteko eginahalean

Argantzón Ikastolak CD/DVD bat osatu du Bonberenea Ekintzarekin, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin, eta beste hainbat artistarekin elkarlanean. Bi helburu betetzeko burutu dute proiektua: alde batetik, Argantzón Ikastolari laguntzeko, diru arazo larriak baititu; eta bestetik, arazo horien arrazoi nagusia mahaigaineratzeko, Trebiñuren egoera, hain zuzen ere.



2003ko urrian ireki zituen atearik Argantzón Ikastolak, 11 ikasle eta bi irakaslerekin. Orduz geroztik, piskana, hazten joan da eta gaur egun 50 ikasle ari dira bertan ikasten eta sei irakaslek egiten dute lan. Haur Hezkuntzako 0-3 eta 3-6 zikloetan eskaintzen dituzte eskolak, eta Argantzungo haurrez gain, inguruko herri askotatik ere hartzen dituzte ikasleak, hala nola, Tuiutik, Grandibaldik, Añastrotik, Burgetatik, Panguatik, Mirandatik, Araikotik, Done Estebandik, Gasteiztik...

Denbora gutxian emaitza handiak lortu dituzte Argantzón Ikastolak: batetik, herriaren dinamizazioari bultzada handia eman dio eta komunitatearen euskara maila hobetzeko balio izan du; bestetik berriz, ingurunean erreferentziatzeko hezkuntza zerbitzua bilakatu da. Horrez gain,

ikastolak Argantzungo populazioa mantentzen lagundu du eta herriko "betiko" jendearen eta jende "berria"ren arteko topaleku ere bihurtu da.

Trebiñun euskaraz ikasi ahal izateko aukera bakarra Argantzón Ikastolak ematen du. Etengabeko ahalegina egin behar izaten du eguneroko lana finantzatzeko. Trebiñun bada eskola publiko bat. Gaztela Leongo curriculumean oinarritzen da eta euskaraz ez dauka inolako presentziarik, ezta ikasgai bezala ere. Zentro horretan, Haur Hezkuntzako datuei erreparatuta, ikastolan baino haur gutxiago daude gaur egun matrikulatuta, baina ikastolak Gobernuari kontzertazioa eskatzen dion arren, Burgosko administrazioak esaten du Argantzundik oso gertu

badela eskola publiko bat plaza libre-ak dituen, eta beraz, ez dagoela arrazoirik ikastola kontzertatzeko.

Euskal Herriko Ikastolen Elkartasun Kutxari, familiei, irakasleei eta herritarrei esker dirau bizirik ikastolak. Urtean zehar zenbait egitasmo antolatzen dituzte dirua ateratzeko. Ahalegin horren emaitza da *Pirritx, Porrotx eta Marimotots Garratz eta Mingotsekin Trebiñun* izeneko CD/DVDa ere.

Euskal Herriko hainbat txokotako artistak bildu dira, eta, eskuzabaltasun osoz, ahotsa, musika eta irudia jarri dituzte. Irakasleak, rockeroak, pailazoak, ikasleak... guztiek batera zortzi abestiz osatutako CDa, eta erreportajea eta bideoak biltzen dituen DVDa osatu dituzte. Horixe izan da elkarlanaren emaitza.



Ikastolako guraso baten ekimenez sortu da proiektua. Guraso hark aspalditik zerabilen buruan ikastolako diska bat egiteko ideia eta Bonberenean eman zion bere asmoen berri. Joxe Mari Agirretxe Porrotxi ere esan zioten zein zen Argantzón Ikastolaren intentzioa eta ideiarri forma ematen hasi ziren elkarlanean. Bonberenearen bidez Lisaböko Karlos Osinagarekin eta Dut nahiz Kuraiako Joseba Poncerekin harremanean jarri ziren eta haiek ere prest azaldu ziren Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin CDaren grabazioan parte hartzeko.

CDan, musikari ezagun ugari

Abestietarako gaiak zehaztea izan zen lehen egitekoa. Letrak idazteko hasieratik gertu zeuden Gorka Lazkano gurasoa eta Ekaitz Lotina irakaslea. Beste abesti batzuetarako hitzak berriz, Ruben Sanchez eta Iñaki Viñaspre bertsolariei eskatu zizkieten. Tolosatik ere lortu zuten beste abesti baterako letra, Txoan Ormazabalak egina.

Hitzak osatu zituztenean, musikari pasatu zizkieten. CDko kantak Joseba Ponce "Mingots" (Dut, Kurai) eta Karlos Osinaga "Garratz" (Lisabö) musikariek konposatu eta jotuz dituzte. Euskal rock musikaren bi erreferente horiekin batera, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek hartu dute parte, abestiei ahotsa jarritz. Imanol Ubeda "Narrats"-ek ere

(Deabruak Teilatueta, Bide Ertzean) egin du abesti bat. Musikariok sortutako kantuez gain, Imanol Urbietaren "Alavatik Arabara"-ren bertsioa ere sartu dute CDan. Beste hainbat musikari ezagunek ere kolaboratu dute diskoan: Mikel Abrego (bateria), Mikel Zelaia "Mirri" (haizeak), Joseba Irazoki, Juanxto Arakama "Sofanbeltz", Natalia Garmendia... Eta Karlos Osinagak berak grabatu eta nahastu du guztia, Tolosako Bonberenean. Argantzón Ikastolako arduradunen esanetan, sortu dena "harribixi" bat da, "haur nahiz heldu dantzari jarriko dituen, apurtzailea, freskoa, zortzi *bit* biltzen dituen lan gazia, eta goxoa".

DVDan, pailazoek beste abentura bat

Elkarlanaren emaitza da DVDko erreportajea ere. Argantzón Ikastolako kideen lana izan zen Trebiñuri eta ikastolari buruzko informazioa biltzea eta gidoiko ideia nagusia sortzea. Gero berriz, pailazoekin batera gidoiari forma ematen joan ziren eta ondoren, lokalizazioak, pertsonaiak, atrezzoak, etab. osatu zituzten: "Lan berria izan da guretzat, baina esperientzia oso polita eta aberatsa".

Hala osatu zuten erreportajea, Kaxiporretako Isa Fernandez de Agirren gidaritzapean. Oraingo honetan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots paila-

zoek abentura dibertigarria biziko dute Trebiñuko lurraldean eta historian barna. Mapan agertzen den hori laku bat delakoan, bainujantzi eta guzti abiatuko dira Panpoxa furgonetan; baina, bertan, sorpresa ederra hartuko dute! Trebiñuarrak ezagutuko dituzte, eta, halaber, Argantzón Ikastola. Erreportajeaz aparte, beste 3 bideo ere biltzen ditu DVDak: "Irria" kantaren bideoak, *making off*-a eta kredituak laguntzeko hanka-sartzeen bildumatxoa.

Argantzón Ikastolako kideek azaldu dutenez, proiektuak hainbat eragile elkarrekin lanean aritzea ekarri du eta "horrek besteengandik ikastea ahalbidetzen du". Ikastolako komunitateari begira ere onurak baino ez dituzte ikusten: "Familiak eta irakasleak inplikatzeko direnean, batasuna sortzen da, eta horrek hain beharrezkoa den gertutasuna dakar. Proiektua norberarenean dela sentitzea balio du eta hori oso garrantzitsua da". Gainera, ikastolako ordezkarien hitzetan, Trebiñun egoteagatik ikastolako lana egunero aurrera eramateko dituzten zailtasunei aurre egiteko, beharrezkoa da proiektua maitatzea, lanera ilusioarekin joatea eta oztopoei aurre egiteko indarrak batzea: "Ekimen honekin jaso dugun eskuzabaltasuna eta maitasuna ikaragarria izan da. Ilusioz bete gaituzte, indarberrituta aurrera goaz".



Zer ekarpen egin zion Eusebio Osak euskal irakaskuntzari



Nago galdera horrek gonbita egiten didala begi bat orain berrogei urtera edukitzeko, eta bestea, egungora eta biharkora. Bereziki pedagogia eta gizartearen arteko harremani jarriko diet begia –*Pedagogia eta gizartea*, Lur, Donostia, 1972–, beste honi ere erreparatuz: zer kritika egingo lioke gaur egun Osak egungo euskal irakaskuntzari? Ez dut asko arriskatu, gehienbat bere hitz idatziak tolestuko ditut, haren ideiak nolabait iraganetik gaurkora ekartzen ahalegindurik.

Duela berrogei urte ikastoletan erlijioa edo dotrina eman behar zen edo ez, garrantzizkoa zen. Gizartearen sekularizazioa hasia zen erpinetik: seminarioak eta komentuak husten hasiak ziren, baina herri xehean, erlijioak pisu handia zuen. Ez zitzaion iruditzen ikastolan dotrina eman behar zenik. Eta erlijioa heziketa ordenazalearen iturri bezala kontsideratzen zuenez, baztertu beharreko zat bat bezala, fedea ez, azken hau izan zitekeen eraldatzaile eta iraultzaile. Erlijioak psikologia ordenazaleak sortzen ditu:

“Erlijio ideiaaren barnean, bikote bauek aurkitzen ditugu: goikoa-bebe-




Pako SUDUPE
EUSKARA TEKNIKARIA

koa, gorputza-anima, materia-espiritua, mundu hau-beste mundua, oraingoa-betikoa, sakratua-profanoa (...) Beraz, bada ordena bat, bada mailaketa bat, ordena hori, Jainkoak berak ezarria da. (...) Goikoak goian behar du. Behekoak behean. Jainkoak landatu duen arbola sakratu boni ukitzen diona, madarikatua geldituko da (...) Beraz, gizartean ere, goikoak eta behekoak, izan bebarko dira. Gizarte bat estrukturatzerakoan, ideia nagusia ez da denen berdintasuna izan,

ezberdintasuna baizik. Diruaren ala agintearen indarrez goi mailan bizi direnak, maila horretan ez dira bidegabekeriak izango, ordenaren lojika sakratuz baizik. Eta behe maila zapalduan direnak, ez dira maila horretan injustiziagatik izango, halabehar sakratuaren aginduz baizik. Kexatzeak ez du sentidurik. Gauzak eta gertakariak diren bezala onartu behar dira. Justizia behar da, maitasuna behar da, baina behekoa behekoz konformatu, goikoari goian bakean utziz. Gehienik ere, goikoari on izateko eta urrikalmenduz jokatzeko kontseiluak emanaz”.

Francoren erregimenaren eta Eliza katolikoaren arteko ezkontza estuak aspaldiko kontua dirudi; baina, orduan, zergatik ikusten dugu Nafarroako agintari nagusia ekitaldi erlijioso guztietan eliz buruzagiekin bat-bat eginda, eta zergatik doa Maiatzaren Lehenean EAEko lehendakaria Arabako Estibalizko santutegira, hango Ama Birijinaren egunaren karietara, eta ez langileen elkarretaratzetara? Erlijioa eta politika uztarturik *statu quo*a zurkaizten, duela berrogei urte eta orain.



Ikastoletan duela berrogei urte beste gai polemiko bat politikarena zen: politika eman behar da ikastolan? 1968ko maiatzean lehertu zen kultura matxinadatik zetorren haria, bereziki, Parisen, Frantzia. Grenobleko goetzain Matadrin jaunak zioen Frantziako apezpikuen batzar batean ezen politika zela bizitza sail guztietako existentzia orobiltzen eta egituratzen zuen lo-karria:

“Pokitika ez dela eskolaren zeregin-a, esan obi zaigu. Horrekin sinestara-zi nahi digute, eskolan politikariek ez dela ematen, eskola politika guztien gainetik dagoen mundu garbi eta neutral bat dela. Hemen datzan gezurra salatu behar dugu. Horretarako, analisis kritiko bat egiteko gauza izan behar dute irakasleek. Orduan ikusiko lukete, eskola-tokiak, eskolan ematen diren gaiak, eskolan erabiltzen diren metodoak, den dena ideia politiko batzuen azpian eta esanera dagoela. Irakasleek inplikazio politiko hau ikusten ez badute, sistemaren morroin zintzo bezala jokatu dute, besterik pentsatu arren. Bestalde, nabiko itsu ere izango dira, ematen duten eskola moldeak haurraren eta gaztearen duen inpakto politikoaz jabetzen ez badira.”

Irakurleari segur aski, niri etortzen zaidan bezala, LOMCE etorriko zaio burura, besteak beste. Bestalde, horrek zer esan nahi du, irakasleak egungo talde politikoei buruz dituen filia eta fobia

politikoak azaldu behar dituela ikasgelan?:

“Honek ez du esan nabi beziketa, eskola eta irakaskintza mailan behintzat, “alderdi politiko” baten serbitzuko jarri behar denik, irakasle bakoitzak “bere politika” egin behar duenik. Aitzitik, beziketa eta irakaskintza politizatzeaz zera esan nabi dugu: egungo eta hemengo munduaz, gizarteaz eta gizonaz [artean “gizaki” eta “jendaki” ez ziren erabiltzen] ikuspegi real eta global bat ematea, bizitza konkretoa bere azken erroetan analizatzea. Eta ikasleagan postura kritiko eta libre bat sortaraztea. Gure arteko eztabaidak beste plano batean mugitzen dira gebienetan. Eskola pribatuak ala publikoak, Elizarenak ala Estaduarenak, eta abar. Horrela, alternatiba faltsoak presentatzen ditugu, azaleko alternatibak”.

Horrek ez du azalpenik behar, bera mintzo da aski klarki. Ildo interesgari horri jarraiki, gehiago zehazten du arrazoiak irakaskintzaren eta heziketaren kontzeptuak bereiziz:

“Irakaskintza edo instrukzioa jakitean dago zentratua: matematikak, fisika, historia, midikuntza, eta abar... Iadanik landua, bildua eta liburuetan almatzen dagoen jakiteetan zentratua. Utilitate bat duten ezagutzetan, jende ugariari multzoan administrazio dakioken jakiteetan zentratua. Aitzitik, beziketa pertsonagandik abiatzen da. Gogoan du, pertsona bakoitza diferentea dela. Pertsona bakoitza dituen abalmenak, abalmen fisiko, moral, sozial, artistiko eta kreatzailak desarrolatzen lagunduz, bakoitzari NOR izaten, bere buruz jokatzeko laguntzen dio. Hau da, pertsona izaten (...) Egunero zenbait orduz, urtero zenbait hilabetez, haurren mundua eskolatua gelditzen da, helduen mundutik aparte, helduen ekintzetatik eta problemetatik urruti. Hementxe hasten da eskolaren deformazioa, naturaren kontrako bekotua. Gizarteko errealitate bizienak, funtsik gabeko bilakatzeko dira eskolaratzean (...) Frantziako 1789.eko iraultza, esaterako, pentsatu eta, prozesu historiko baten barnean baloratu egin beharrean, ikasi egiten da. Gero ikaste bonek, nota

Zenbat fraseologia ilun ikasten dute gure gazteek, buruz, batere ulertu gabe?, paragrafo trinkoak, esaldi abstraktuak buruz ikasten igaro denbora, azterketa egin eta nota ateratzea beste helbururik gabe?



bat ateratzeko balio du. Eta nota honek, diploma irabazteko. Non gelditu da iraultza baren arrakasta, historian izan zuen influentzia? (...) 1917-koa, ikasi ere ez. Ez pentsatu eta ez ikasi. Kasualitatez? (...) Irakaskintzaren zeregin-a hau da: haurrak gizarte bizitik atera eta, urrezko kaiola disziplinatuta batzutan domestikatu ondoren, selekzio ‘egoki’ bat egin eta, selekzio horretan ‘predestinatuak’ izan direnei eskailera eskaini, goragoko beste kaiola ederrago batzutarra igo daitezen. Honela, irakaskintza sistema ez da inoiz neutrala. (...) Gizartea bi sailetan banatzen du: alde batetik, eskolatuen irakaskintza, bizitzaren kontakturik gabe; bestetik, laneratuen bizitza eta langintza, egiazko beziketa baterako eskuarterik eta astirik gabe”.



Ez zuen baztertzen profesionalizazioa eta espezializazioa, ez zuen unibertsitate elitista proposatzen, baina ezta masifikatua ere; unibertsitateak ez zuen lanbide heziketa duina ordezkatu behar



Ikusten duzue nola planteamendu horiek bidea ematen duten eztabaidarako. Erradikalegi agertzen dela, muturreraino jotzen duela batzuetan? Dударik ez. Baina benetan zentzu kritikoa pizteko aproposa delako ere bai. Zenbat fraseologia ilun ikasten dute gure gazteek, buruz, batere ulertu gabe?, paragrafo trinkoak, abstraktu bilakaturiko esaldiak buruz ikasten igaro denbora mordoa, azterketa egin, eta nota ateratzea beste helbururik gabe? Hernanin bizi naiz, hemen ikasten dute nire seme-alabek. Zer dakite herrian dauden elkarteez?, errumaniarren txabolaguneaz eta haiek gure gizartean txertatzeko dagoen planaz; zer dakite Orona-Ideoz, edo larri dabiltzan enpresez? Curriculumean sartzan ez denez, eta curriculum betetzeak nahiko lan ematen duenez... kontua ez da, jakina, irakasleei errua egozte, denok kontzientzia kritikoa hartzea baizik. Eta horretarako bidea damaigute Eusebio Osaren hausnarketek.

Ikastolan ez ezik alfabetatze-ikastaroetan ere aritu zen. Paulo Freire zuen horretan maisu hartua. Hona heziketa askatasuna ez baizik askatasungintza dela nola arrazoituen duen, Freireren ideiak gurera ekarriz:

“Askatasunaren ideia baino askatasungintzarena gehiago erabiltzen du Freirek. Askatasuna edo libertatea konzeptu estatikoa da. Askatasungintzak, berriz, ekintza, bideko burruka adierazten du. Askatasungintza edo liberazioa, esperientzia mailan, eta ez teoria mailan. Gaurko pedagogi mugit-

men du gebienak askatasunari lehen maila eskaintzen diote, teoriarik behintzat. Baina Freireren baitan badu originalitate bat askatasun honek (...) Ideia hau izan behar dugu beti begien aurrean: zapaldua askatzeko burrukatik kanpo ez dela askatasunik mundu honetan. Askatasuna, askatasungintza dela, eta honek, bere konkretutasunean, burrukaren forma duela. Askatasuna ez da lorategian aurkitzen den altxorra”.

Azken hamabi urteak unibertsitatean eman zituen, ez filosofia ematen, berak nahi izango zukeen bezala, euskararen dialektologia eta gisakoekin enplegatu zen; eta, elementuen ordenaz egin zuen tesia. Ikastolan erlijioak zer leku izan behar zuen—edo ez zuen—argudiatu zuenak, eta heziketaren eta politikaren arteko sartu-irtenez aritu zenak ezin zuen unibertsitatearen irakaskuntza-eredua kritikarik kanpo utzi.

Konbentzimendu teorikoaren eta jokabide praktikokoaren arteko eskizofrenia salatzen zuen, hots, azken buruan, bere kontraesanak jartzen zituen agerian:

“Unibertsitate sartu nahi lukeen gazte batek berak burutu ditzakeen ikasketei buruzko abolkua eskatzen badizu, lan-merkatu onena duen karrera egitera joan dadila esaten diozu, horretarako abal bide minimorik baldin badu behintzat. Langabeziatik ihes egin nahi duen gazte bati, bere amets osoa lanpostu bat aurkitzea den bati, zer esango diozu besterik? Nola ausartu Unibertsitate, edozein Fakultetara, batez ere kultura sakon bat lantzerako, pentsamendu askakontzera, abalmen kritikoa zorroztera, fintasun, zebaztasun, zorroztasun intelektualaz jaztera joan behar dela esaten? Orduan, Unibertsitatearekiko zure kontzeptu bikaina alde batera utzi eta, giroak dioena, ikasleak eskatzen duena, irakasleek eskaintzen dutena, Unibertsitateak proposatzen duena eta Erreformatik bideratzen duena kontuan harturik, zeu ere pragmatismo horretara makurtzen zara eta, korronteak zaramatzen aldera egiten duzu. Ez du ematen gauzak, gaur egun, beste maila batean proposa daitezkeenik, utopian erori gabe, atzerakoitzat joa

izan gabe”.

Duela hogeit hamar urte indarrean zen eredu halakoa baitzen eta egungoa ere, funtsean, berdina:

“Dударik ez dago gaur egun men-debaldeko gizartean Unibertsitatearen bideak markatzen dituzten ministroak, zuzendari eta kontseilari jaun-andreek gizarte eredu jakin bat dutela begien bistan, alegia, gaurko gizarte industrializatua eta teknokrata, merkatuaren legepekoa. (...) Enpresaren bat-bateko beharrei begira egiten dira gauzak. (...) Gauza da, gizarte kapitalistan martxan dagoen makinariak behar dituen pieza egokiak sortzea. Bulegoen, lantegien, ikasgelen, laborategien, ministeritzen, parlamentuen eta burokraziaren ibili normala garrantzizko duen giza-emakume multzo egokia prestatzea. Horretarako, karrera laburrak egitea aski omen da (...) Eta gai jakin batean ongi jantzi-rikiko superespezialistak ematen baditu Unibertsitateak, bere zeregina ongi bete luke, nabiz eta gero espezialista hori kultur arloan analfabeto hutsa izan eta itxuraz irakurtzeak eta idazteak lanak eman. Hitz batez, merkatal egiturei, finantza egiturei, ekonomi eta politika egiturei ongi egokituko zaien unibertsitaria lortzea da helburu”.

Zein oinarri izan behar zituen Osa- ren gogoko unibertsitate-ereduak?:

“Nolabait lehengora jotzea litzateke eta, zentzu horretan, gure jarrera aski tradiziozalea izango litzateke. XIX. mendera eta XX.aren hasierara itzuliko ginatke, gutxi gora-behera. Ordukoa kopiatu ez, baina bai ordukotik abiatuz gaurkora egokitu. Eta Unibertsitate horretan, lehenbaita ez luke izango urgentzia teknologikoak, zientzi arlo supermugatuak eta superespezializazioak, jakinduriak, kulturak eta kritikak baizik. Unibertsitate horretan, arrazoi instrumentalak ez luke aginduko, arrazoiketa instrumentalizatu gabeak baizik. Unibertsitate horretan, zientziak zientziaren oinarriak eta presupostuak beldurrik gabe eta luze-zabal aztertuko litzuzke, hots, epistemologia, hots, filosofia izango litzateke nagusi, erreflexio filosofikoa eta hortik sortzen den duda edo galderazko jarrera zientifikoa, botere-

aren indarraren eta dogmatismoaren kontra. Topiko bat errepikatzea eta parafraseatzea baldin bada ere, esango nuke Unibertsitate horrek arrazoiketaren (ez arrazoiaren) boterea landuko lukeela, boterearen arrazoiaren (ez arrazoiketaren) kontra.”

Horrekin ez zuen baztertzen profesionalizazioa eta espezializazioa, ez zuen unibertsitate elitista proposatzen, baina ezta masifikatua ere; unibertsitateak ez zuen lanbide-heziketa duina ordezkatu behar.

Haatik, ez zuen esperantza handirik, korrontearen aurka zebilen sentipena zuen:

“Badirudi gizarteak daraman norabidea eramango duela Unibertsitateak. (.) Agente ekonomiko-administratibo-politikoek nekez onartuko dizute jakinduriaren egoitza izango den Unibertsitatea. Ofizio-irakasle eta titulu-banatzaille izango denaren alde jokatuko dute. Beraz, ez dugu ilusio haundirik egiterik. Galdutako Unibertsitateak galdurik jarraituko du. Aitor-tu behar dut, beraz, daukagunaz

egiak kontatu eta salaketak kantatu ditudala; nabi nukeenaz, berriz, ametsak egin besterik egin ote dut? Hara zertan diren nire esperantzak! Mendebalde pragmatikoak eta gizarte administratuak aurkitu, bereganatu eta finkatutako Unibertsitatean, galdutakoaren hondakin zenbait, abal denik modurik taxuzkoenean sartzen saiatzeaz [etsi] beharke dugula uste dut”.

Hori idatzita, hara non irakurtzen dudana Argia aldizkariaren maiatzaren 4ko alean, Pello Zubiriak sinaturiko artikuluan, Halimik Sarkozyri buruz dioena: *“Eskuinaren errezeta zaharra dabil: interes ekonomikoez ez hitz egitearren –ondo erabakita, jende gutxi batzuenak defenditzen baititu– hitz eta pitz aritu behar du balioez, kulturaz eta jarreraz: ordena, autoritatea, lana, meritua, moralitatea, familia”* Nork jarri ditu arriskuan ordena, autoritatea, lana, meritua, moralitatea eta familia? 1968ko maiatz hark. Berririo Sarkozy: *“Aldarrikatzen zuten dena zela libre, agintea bukatua zela, fini edukazioa, fini errespetua, jada-*

nik ez zegoela ezer handirik, ezer sakratu-rik, ezer miresgarri-rik, araurik ez, ezta debekurik ere (...). Lanaren krisia ezer baino lehen krisi morala da, eta horretan erantzukizun handia dauka 68ko maiatzak”; 1968ko maiatz hark emandako bultzadan idatzi zuen Osak Pedagogia eta gizarte; eta hura egun ehortzia dago, eta inon baino gehiago Frantzia, non ezker izenekoak eskuinaren politika egiten duen, oro har, Mendebaleko Europa guztian bezala.

Eusebio Osari buruzko liburuari amaia ematean honela nioen: *“Traultza asko den bora gutxian bizi behar izan dituen belaunaldi baten lekuko abantailatu, erradikal, kontsekuentea izan zen. Galtzailleekin beti, bere ideiak ere galtzaille, itxura batera, baina arrasto luzea izan dezaketena lagun, euskaldunon historian barna.”.*

Artikulu honetara bildu ditugun ideia apur horiek ez al digute sen kritiko pizten, esnatzen?, arrastoa uzten? Hala balitz, gure artean legoke Eusebio Osa, beti ziztaka ari!

argitalpenak



Letra txarra daukat, eta zer?
Alaine Agirre / Jokin Mitxelena

ELKAR


Letra kaskar samarra du liburuko protagonistak. Aitak eta irakasleak maiz esan dioten arren, ez dio aparte-ko garrantzirik eman sekula horri. Egun batean, baina, maitasun gutun bat idatziko dio bere maiteari, Martinari, letra kaskarraz idatzi ere. Eta horrek buruhausteren bat sortuko dio mutikoari. •



Kanguroak zootik ihesi
Iñaki Zubeldia / Alai Zubimendi

IBAIZABAL

Australia da kanguruaren herrialdea. Munduko hainbat eta hainbat zootan eta animalien parketan ere ikus daitezke, ordea. Frankfurtoko zootan ere baziren hainbat, eta haietako hiruk ihes egitea lortu zuten, 2012ko udan. Albiste bitxi horri tiraka osatutako istorioa jasotzen da liburu honetan. •



Zer egiten du Marru behitxoak?
Jo Lodge

BRUÑO

Zabaldu liburuko orrialde koloretsuak, tira egin mihitxoetatik eta begiratu zertan ari den Marru behia. Pieza mugikorrek ditu liburuak eta hamai-ka ezustekoz beteta dago. Ongi pasatzeko aukera emateaz gain, psikomotrititate gaitasunak garatzen, behaketa eta interakzioa bultzatzen du eta irudimena sustatzen laguntzen du. •



Sei hazien bila
Ana Galan / Pablo Pino

AIZKORRI

Mondrago herensugearen zazpi liburu argitaratu dira jada. Aurrez argitaratutako istorio guztiak labor-labor eta irudiz apainduak kontatzen dituen album ilustratua da zortzigarren hau. Mondragoren abentura oro eskura jartzen du. Ezustekoz beteriko liburua da; denarik ageri da: Mondrago zigiluak, ehunezko zatiak... •



Tonino
Miguel Salas / Paolo Domeniconi

OQO / TXALAPARTA

Tonino pinguinoa da istorio honetako protagonista. Jaka iluna, ipurdi gizona, moko naranja, begi pare beltza eta ibilera traketsa du Toninok. Aspergarria egiten zaio bere ingurua, poloa, eta ez du maite hango bizimodua. Basamortuarekin egiten du amets, eta inork ezin dio ideia hori burutik kendu. •



X-Zatiketak bidertuz
Android eta IOS

LUUL

Hatzekin irakurtzeko ipuin interaktiboa da. Haur baten guraoen banatzearekin hasten istorioa, zatiketa batekin. Baina zatiketa horrek biderketak ekarriko ditu berehala. Familia eredu ezberdinen inguruko hausnarketa da ipuinaren muina. Irakurri ez ezik, jolas egiteko eta elkar eragiteko aukera anitz izango ditu irakurleak. •

hik hasi-ren proposamena

www.badok.info

Euskal kulturaren transmisioa, gozamenetik

Euskal musikagintzaren atariak, musikaren eta teknologia berrien berariazko erakargarritasunagatik potentzialtasun handia dauka ikastetxeetan erabiltzeko, euskal musika ezagutzeko, euskal literatura jorrazteko, euskal kulturaren historian sakontzeko, nahiz giza eta gizarte zientzietarako eta sormen lanetarako.

Euskal kantagintza modernoa abiatu zutenak —hala nola, Ez dok amairu, Errobi, Mikel Laboa, Lourdes Iriondo, Xabier Lete...—; desagerturik dauden euskal musika talde emblematicoak —Negu Gorriak, Itoiz, Hertzainak...— ; gaur egunekoak —Willis Drummond, Berri Txarrak, Ken Zazpi, Gatibu, Skasti, Ze esatek!, Zea Mays, Enkore... —, nahiz atzo be-

zala gaur euskal musika hauspotzen ari direnak —Fermin Muguruza, Ruper Ordorika, Benito Lertxundi, Amaia Zubiria...— batzen ditu www.badok.info euskal kantagintzaren atariak. Euskal musika ezagutzeko, entzuteko eta gozatzeko material ugari eskaintzen du, euskara eta euskal kulturaren transmisioa egiteko ez eze, giza eta gizarte gaietako hainbat alor jorrazteko baliabideak eskaintzen ditu, eta noski, dantzarako eta kanturako gonbita egiten du.

Euskal kantagintzari buruzko ataria [badok.info](http://www.badok.info) eta 2009ko abenduan sortu zuen *Berria* egunkariak. Orain, iragan maiatzean, eraberriturik eta osaturik aurkeztu dute, batetik euskal musikaren transmisioa eta hedapena egiteko bokazioz, eta bestetik, musikagileen eta hartzaileen arteko zubilana egiteko desioz.

Publiko zabalari zuzendua bada go ere, erabilgune naturalizat ikastetxeak ditu webguneak, eta Arrue ikerketak azalera dituen datu “kezka-garriak” iraultzea du desio, Jon Eskisabel webgunearen arduradunaren arabera —ikerketak jaso duenez, LMH4ko ikasleen %15ek bakarrik



entzuten du musika euskaraz, eta DBH2koen artean, %12k—. Oraindik baliabide pedagogiko propioirik eskaintzen ez badu ere, ikastetxeetan euskal musika ezagutzeko, euskal literatura jorratzeko, euskal kulturaren historian sakontzeko, nahiz giza eta gizarte zientzietarako eta sormen lanetarako pentsatua baitago.

Lehen Hezkuntzan gorputz espresioa nahiz hizkuntzaren ezaguerara, erabilera eta jabeakuntza bultzatzeko baliabideak webgunea. DBHra begira dauka, alabaina, potentzialtasun handiena atari honek, batetik, teknologia berrien erakargarritasunagatik eta bestetik nerabeek oro har musikarekiko duten jarrera eta interesagatik. Teknologia berriekiko eta musikarekiko zaletasuna euskarara eta euskal kulturara gerturatzeko akuilu gisa erabiltzea proposatzen du webguneak.

Datu-basea, 'player'-a eta aldizkaria

Hiru adar dauka *badok.info*-k: batetik, datu base bat da, ondarearen transmisiorako eta ezagutzarako tresna handi bat. Bertan, euskal kantagintzaren historia agertzen da, kantagintza berriaren sorreratik hasita, gaur arte. 50eko hamarkadatan Nemesio Etxanizek egindako ahaleginaren berri ematen da, esate baterako, eta baita, 60ko hamarkadako loraldiarena ere; 70eko Ipar Euskal Herriko rock mugimendua, 80etako RRVa, folkaren loraldiaz; EHko metal mugimenduz, trikitiak baseritik plazara egindako urratsaz... euskal kantagintzak hainbat alorretan egin duen ibilbidea jasotzen du atariak. Datu base horretan, haatik, ez dugu 60-80ko hamarkadetakoa informazioa soilik aurkituko, baita gaztetxoengandik gertuen egon daitezkeen taldeen azken disko berrienei buruzko informazioa ere. Haur eta gaztetxoei euskal musikagintza eskura jartzen die bada webguneak, begirada historikoa eta gaur eguneko elkarbilduz.



www.badok.info

Zenbakitan:

- 370 biografia
- 1.900 diskoren erreferentzia
- 17.800 diskoren aipamena
- 11.500 kantu entzungai

Atalak:

- Musika aldizkaria
- Musikarien biografiak
- Kantuak entzungai
- Zerrenda propioak
- Historia



Bigarrenik, *badok.info* berrituan hainbat plataforma digitaletako mila kantu entzun daitezke webguneak duen erreproduktore propioaren bidez, era horretan, euskal musikaren zabalkundea eta kontsumoan sustapena bilatzen du webguneak. Ikasleek nahiz irakasleek euren abesti-zerrenda propioak osatu ditzakete, eta honek baliabide interesgarria eskaintzen du hezkuntzarako. Batetik, euskara eta euskal kulturaren transmisioa, ezagutza eta zabalpena gozamenetik —musika entzunaz eta kantuen hitzak irakurriaz— egiteko aukera ematen du, eta bestetik, euskarazko

kantuen bidez giza zientzietako gai ugari lantzeko abiapuntua eskaintzen du, hitzen araberrako bilaketa arerratuari esker, bakoitzak nahi duen tematikaren araberrako *player* propioak osa baitaitezke.

Webgune berrituaren hirugarren adarra informazioari loturikoa da. Aldizkari digitala ere bai baitauka *badok.info*-k. Gaurkotasanaren berri ematen du, alde batetik, baina atzera begira ere jartzen da aspaldiko diskoak eta taldeak gogora ekarriaz. Anisia ere sustatzen du eta hainbat musika adituren iritziak ere jasotzen dira blogetan.



Miren AMURIZA

BERTSOLARIA

Duela aste batzuk umetako eskolagun batekin elkartu nintzen kalean. “Kaixo, aspaldiko!” nik, “Que tal andas?” berak. “Ondo, betiko martxan...” nik, “Pues yo todavía buscando curró...” berak. Langabezia zegoenetik hainbat ikastaro egin zituela kontatu zidan eta euskaltegia izena emateko asmoa zuela; beharrerako aukera gehiago izateko batetik, behingoz euskaraz ikasteko gogoia zuelako bestetik. Poztu nintzen! Poztu nintzen baina zer pentsatua ere eman zidan; lagun honek eta biok eskola berean, gela berean, Dereduan, irakasle eta material bereberekin ikasi baikenuen 3 urtetik 16 urtera bitartean eta hala ere, hura ez baita gaur egun euskaraz azaleko elkarrizketa bat izateko gai. Haur batengan eragin zuzena dute etxean, kalean nahiz eskolan


Txartelak ala gonbidapenak?

jasotzen dituen eredu eta jarrerak edozein hizkuntza ikasteko orduan. Lehenengo biak hain eremu anitz eta zabalak izanik, zailagoa da bertan eragitea. Ikastetxeak ordea, esparru ezin egokiagoak dira hizkuntzen lanketa eta transmisioa modu eranginkorrean egiteko. Eta euskararen kasuan bezala mintzaira gutxitez ari garenean, baita hizkuntzen arnagune nagusi bilakatzeko ere. Baina arnagune barik, ez ote dira ikasle askorentzako itomen izan oraintsu arte?

Koka gaitezen gure herrian adibidez, Berrizen, Euskal Herriko beste leku asko bezala euskararen ezagutza gora eta erabilera beherantza doan herri batean. Laurogehita hamarreko belaunaldikoon argazkia hauze zen gutxi gorabehera ama-hizkuntzaren arabera: % 50ak guraso euskaldunak genituen, % 40ak gazteleradunak eta % 10ak bata euskalduna eta bestea erdalduna. Egun gazteleraz bizi dira azken bi multzoetako ikaskide gehienak, baita lehenengoko batzuk ere. Ez diot balantza euskararen kalterako eskolaren erruz bakarrik desorekatu zenik, baina ez dut uste ikasle erdaldun haiei gure hizkuntza maitatzen irakatsi zitzaizkien ere. Gogoan dut LH-n hainbat urtez

egin genuen Txartelen jolasa adibidez: irakasleak gure izena zuten hamarna txartel banatzen zizkigun astelehenean. Asteazkenean zehar batenbat gazteleraz berbetan entzunezkerok “Txartela!” esaten genion eta hark bere papertxoetako bat bota behar izaten zuen kutxa batera. Ostiraletan txartel kontaketa egiten genuen eta honen beste txarteletik gora zutenetzat, sariren bat egoten zen. Astea joan astea etorri, berdintsuak izaten ziren ordea sarituen eta zigortuen aldean egoten zirenak, eta normala den bezala, jolasa gorrotatzetik hizkuntza gorrotatzera pasatu ziren asko. Arbitro txikien jolasak jokoz kanpo utzi ez zituen erdaldun apurrak, DBH-ra iritsi orduko hasi ziren gure zelaitik urruntzen. Izan ere, zerekin lotzen zuten euskara? Lan koaderno, aditz taula eta berridazketa amaigabeekin... Eta bi aukera zeuden orduan ere: gainditu edo suspenditu.

Ikasgai bat baino gehiago, askoz gehiago da euskara. Irakas diezaiegun bada haurrei euskaraz jolasten, pentsatzen, maitemintzen, lan egiten, whatsapppeatzen, izaten... Txartel gorriak barik, banatu ditzagun gonbidapenak; lagun berriak egitea bezain garrantzitsua baitugu zaharrekin adiskidetzeari.



“Guk ez dugu ikasleek nahi edo eskatzen dutenaren arabera eskola bat egitea proposatzen, guk esaten dugu ezinezkoa dela eskola bat egitea ikasleen iritzia ezagutu gabe”

Francesco Tonucci



GRAXIANA SORGINAREN ETXEAN

IKASI, GOZATU ETA ONGI PASATU

EGONALDI MOTAK:

- **MONITORERIK GABE:** irakasleek antolatutako egonaldia.
- **MONITOREEKIN:**
 - 4-11 urte: sorginkeriz eta sorpresaz beteriko egonaldia.
 - 12-17 urte: abentura ekintzak (kainoia, tirolina, rapelak...)

***Asteburuetakoko egonaldiak:** taldeentzako, asteburuetakoko 24 orduak monitoreekin egoteko aukera.

***UDALEKUAK:** euskaraz eta ingelesez.



GRAXI-BUS autobus
zerbitzu berria



Autobus aurrekontuak, egonaldien prezioak eta informazio osoa: 675 71 14 98

www.graxiana-aterpea.com